



ttiipi-ttapa

2015eko apirilaren 16a | XXXV. urtea | 636. zenbakia

www.ttipi.eus



Gehigarri berezia

Moda gehigarria → 9-16

LESAKA → 20

Tantirudantza jaialdia
apirilaren 26an

DONEZTEBE → 26

Nafarroako Akordeoilarien
Topaketa apirilaren 19an

BAZTAN → 35

Autokarabana aparkalekua
zabalik Ordokiko Berron

BERROETA → 38

Asteburu kulturala
apirilaren 24tik 26ra

Julio SOTO EZKURDIA | 2015eko Nafarroako Bertsolari Txapelduna

«Bertsoari dagokion tokia ematen saiatzen ari naiz»



Gorritiko bertsolariak Nafarroako txapela jantzi du hirugarren aldiz. Martxoaren 28an Elizondon jokaturako finalean, «nire buruarekin bakean eta lasai sentitu» eta saio borobila osatu zuen. Hala ere, bertsotan gustura aritzeak, sortu zen giroak eta denen artean final ederra osatzeak gehiago betetzen dutela dio. Finalaren errepasoa egiteaz gain, bertsolaritzak bere bizitzan duen tokiaz aritu da TTIPI-TTAPArekin.

ELKARRIZKETA → 3



ERREPORTAJEA → 4-5

70. hamarkadaz geroztik 13 herri guttienez eskolarik gabe gelditu dira eskualdean

TURISMOA → 18

Bertziko Partzuergo Turistikoa osatzen zuten elkarte pribatuek Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoa sortu dute. Turismoa elkarlanean garatzen segitu nahi dute.

BAIGORRI → 17

Apirileko azken igandea, hilak 26, besta egun handia izanen da Baigorriin, Nafarroaren Eguna ospatuko baitute

ZOKKETAK → 2



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra



ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENDA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

ZOZKETAK

635. ALEKO IRABAZLEAK

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS & BONBERENEA TXARANGA CDa+DVDa
M^o Jesus Irungarai | **AMAUIR**
ELE-MELE MAHA! JOKOA | Urtxintxa Eskola
Asun Iparragirre | **BERA**
"Galtzagorriei to, Inaxito!" LIBURUA + DVDa | Lanku
Eduarne Arretxea | **ITUREN**
2 LIBURU | Erein argitaletxea
"Eskeletoa" Itziar Iriarte | **NARBARTE**
"Hutsaren Itzalak" Laura Irazoki | **BERA**
2 SARRERA | Irrisarriland
Itziar Elizaintzin | **GARTZAIN**
2 SARRERA | Aquariuma
Jose M^o Zamora
ORNOZ-MUGAIRI

1

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



2

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



3

2 LIBURU
Ttartalo argitaletxea
"Animalia handien liburu handia" "Koloreak"
www.ttartalo.eus



4

5 SESIOKO BONOA
Toki Ona Berako Udal Kiroldegia
www.urdi1.com



DESKONTUAK



BERA
%5, 30etik gorako gastuan



BERA | %5 konponketetan



LESAKA | Pertsona 1: %10 matrikulan 2 pertsona: 1. go pertsonak matrikula doan, 2. pertsonak hilabete bat doan. (abuztuak 31 arte)



LEITZA
%10 oparitzeko artikuluetan



Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
DONEZTEBE
%5 zakur eta katuen pentsuan

5

2 SARRERA
Sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com



6

"Ornitorrinkus" CDa
"Mende baten aldarria" DVDa + Liburua
Lanku | www.lanku.com



Arreta «bertsoan jarrita» eta txapelketak sortu ohi zizkion tentsio eta mamuak etxean ahaztuta igo zen Julio Elizondoko oholtzara «nire buruarekin pakean eta lasai sentitzen nintzen,

presiorik gabe». Saio borobila osatu eta hirugarrenez jantzi du Nafarroako txapel beltza. Dena den aitortu digu txapelak berak baino «bertsotan gustora egin izanak, Elizondon

sortu zen giroak eta denon artean final ederra osatzeak gehiago betetzen» dutela. Finalaren errepasoa egin eta bertsolariak bere bizitzan duen tokiaz ere hitz egin digu gorritiarrak.

Julio SOTO EZKURDIA | 2015eko Nafarroako Bertsolari Txapelduna

«Txapelak baino gehiago bete nau finalari neurria hartzen asmatzeak»

Eneritz IRAOLA | GORRITI

Hirugarren txapela duzu. Esanahi bereziren bat badu?

Egia esan txapela lor-teari baino gehiago begiratzen nion saio on bat egiteari, batik bat bertsoaren gainean jarri nahi nuen begirada. Beste urte batzuetan txapelketako zurrunbiloak irentsi izan nau: puntuazioak, gaiak, final on bat egin nahiak, final ondorenak... beldurra eta mamu asko, tentsioa sortu izan dizkit. Aurten indarguztia bertsoan bakarrik jartzea lortu dut eta horixe izan da finalak utzi didan sentsazio gozoena, txapelak berak baino gehiago betetzen nauena. Kantatzeko momentuan, oholtzara igo aurretik, bezperatan... nire buruarekin pakean sentitu naiz eta lasaitasun handiagoz osatu ditut bertsoak.

Elizondon sortu zen giroak ere lagunduko zuen horretan...

Nik orain artean bizi izan dudana finalik ederrena izan da. Giro aldetik izugarria izan da, bertsolariok elkartuta geunden eta entzulea ere oso hurbil sentitu genuen. Frontoira sartu ginenetik, lehenbiziko agurretatik, nabari zen giro berezia. Entzulea emateko gogoz zegoen, baina baita jasotzeko gogoz ere. Txaloz eta berotasunez erantzuten dizutenean, bertso on bateskaini nahi diezue bu-



ARGAZKIA: E. IRAOLA

2010 eta 2011n segidan izan zen Nafarroako txapelduna, hirugarrena du aurtengoa.

eltan. Bion arteko lotura hori gauzatu zen. Umorea, hunkidura momentuak... arratsalde majikoa izan zen.

Kartzelako gaiak ere eman du zeresana..

Gaia entzundakoan entzuleen artean sortu zen marmarrak nabarmen utzi zuen berdintasuna oraindik oso urruti dagoela. Emakumeen sexualitateaz ez dela naturaltasunez hitz egiten geratu zen agerian. Gai apurtzailea iruditu zitzaidan jendea biluztea lortu zuelako, deseroso sentitzea. Baina izan zuen ondorio positiboa ere, bertsoak entzundakoan, bospasei minutuz pentsarazi eta aurpegiko espresioa aldatu zitzaien askori,

ALDAKETA

«Bertsoak nire bizitzaren zatirik zentralena hartua zuela ohartu nintzen azkeneko Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketen ondoren. Txapelketa txar bat egin ezkerok besterik ez zegoela iruditzen zitzaidan baina konturatu naiz ez dela hala. Horregatik bertsoari dagokion tokia ematen saiatzen ari naiz, oso toki garrantzitsua baina ez luke pilare zentrala izan behar»

barruko espresioa ere aldatu zitzaielako. Iruditzen zait gai hori izan zela arratsalde horretan pasa zen gauzarik hoberenetakoa. Entzuleetako batzuk etxera beraien buruarekin haserre, baina pozik joan zirela uste dut, gaia emandakoan ohartu ez zirengauza batetaz oharu zirelako bertsoak entzundakoan.

Txapelketako beste gaiak zer moduzkoak iruditu zaizkizu?

Orokorrean, esango nuke gai guztiak izan zirela oso onak. Momentu batzuetan oso apurtzaileak eta oso ausartak. Bertsolarioi askatasuna eman digute, gaia entzun eta gero, guk erabakitze-ko gai horri zein tonu

eman nahi diogun: umoretik, neutrotik, sakonagotik... gaiari heltzeko eta eskertu egiten da hori.

Terreros izan zenuen buruz burukoan lagun.

Laguntasun berezi batek lotzen gaitu eta bere izena entzutean opari bat zela sentitu nuen. Finalista guztiak neukan harreman oso ona, talde giro oso ona zegoen eta hori kanpotik ere nabari zen. Ofizioak egiteko momentuan batik bat, konplizitate hori nabari zen, elkarrekin lan ona osatzen ahalegintzen ginelako. Hori da nire ustez, final bat ona izan dadin lehenengo baldintza.

Zenbatekoa da txapelaren itzala?

Txapelak arratsalde bateko jarduna neurtzen du, momentu horretan besteek baino hobeto abestu duzula erakusten du, ez besterik. Baina zaila da horretaz oharretan txapelketan buru belarri sartuta zaude nean. Bertsoak nire bizitzaren zatirik zentralena hartua zuela ohartu nintzen azkeneko Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketen ondoren. Txapelketa txar bat egin ezkerok besterik ez zegoela iruditzen zitzaidan baina konturatu naiz ez dela hala. Horregatik bertsoari dagokion tokia ematen saiatzen ari naiz, oso toki garrantzitsua baina ez luke pilare zentrala izan behar.

HEZKUNTZAK → HERRIETAKO ESKOLEN BILAKAERA

70. hamarkadatik guttienez 13 eskola itxi dituzte eskualdean

Azken unean ezarritako baldintza bat aldatuta, Nafarroako Gobernuak eskola irekitzeko aukerarik gabe utzi du Zubietan.

Hasiera batean, ikasturte berrirako guttienez hiru urteko bortz haur izatea eskatu zuten Nafarroako Gobernutik, eta horretarako ez zen arazorik izan

Zubietan. Azken momentuan, ordea, irizpideak aldatu eta bortz ikasleren orde, zortzi eskatu zituzten Gobernutik.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Saiakerak saiakera, herrian eskolarik gabe segituko dute Zubietako haurrek.

G. PIKABEA

Ikasle eskasiagatik ala herri haundietan eskola kontzentrazioak eraiki dituztelako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak eskualdeko hamahiru eskola itxi ditu 70. hamarkadaz geroztik. Batzuetan gerora berriz irekitzeko saiakerak egin badituzte ere, kasuguztietan ahalegina hutsean gelditu da.

Zubietan izan da Hezkuntza Departamentuaren ezetza jaso duen azken herria. Eskola 1995ean itxi zuten, haur gutti zegoela argudiatuz. Ondoko urteetan berriz zabaltzen saiatu ziren eta berriki ere bai. Ernesto Dominguez Zubietako zinegotziak azaldu digunez, «agintaldi honetan Udalak eskola irekitzeko bi saiakera egin ditu. Lehenbizikoan Udalak para-

tu zuen prozesua mar txan, baina gurasoengandik ez genuen esperotako babesik jaso, edo agintari, guk uste genuen beharra gurasoek ez zuten ikusi. Bigarrena 2014ko udaberrian hasi zen, guraso talde batek interesa azaldu baitzuen». Orduan hasi ziren berriz gaiarekin: «plenoan landuz eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariekin bilera eskatuz».

2014ko uztailean egin zuten bilera hori. Zubietako hiru udal ordezkari eta Hezkuntza Departamentutik, bertzeak bertze, David Herreros Zuzendari Nagusia bildu ziren. «Eskola behetik goiti eraiki nahi genuen; Haur Hezkuntzako bigarren zikloarekin hasi eta poliki-poliki proiektua hazi», dio Dominguezek. «Plantamendua ongi ikusi zuten,

ez baitzuen inolako aldatetarik suposatzen inguruko eskoletan seme-alabak matrikulatuta dituzten familientzat».

GOBERNUAREN EZETZA

«Aurrematrikulazioa hasi baino hiru egun lehenagotik ikuskariak eskola ez irekitzeko asmoa e-mail bidez jakinarazi zidan».

Ernesto DOMINGUEZ
Zubietako zinegotzia

Hiru baldintza ezarri zituzten: guttienez bortz familien idatzizko konpromisoa; hurrengo urteetan jarraipena izatea eta hurrengo ikasturtean sarrutuko lirakeen familien idatzizko konpromisoa; eta Udalak eraikinean beharrezko lanak egitea. Horretarako arazorik ez zen sortu: 2015/2016

ikasturtean hasteko bortz familia prest agertu ziren eta 2016/2017rako lau. Eskolaren egoera ikusteko teknikaria ere bidali zuten: «ongi zegoela ikusi zuten eta hala adierazi zuten bisitan. Idatzizko txostenaren zain gelditu ginen. 2015eko aurrekontuan Udalak dirua ere gorde zuten lanak egiteko».

Asmo aldaketa aurtengo kontua da. «Urtarriean zerbait gertatzen ari zela sumatzen hasi ginen, obra teknikarien txostenik ez baitzuten bidaltzen. Haiekin harremanetan jarri eta 'horretan ari gara' erantzun ziguten». Aurrematrikulazio garaia ailegatu eta familiak galdeka hasi zirenean, Udalak Zuzendari Nagusia eta zonaldeko ikuskariarengana jo zuten: «aurrematrikulazioa hasi baino hiru egun lehenagotik, ikuska-

ZUBIETA

• Sei ikaslerekin 1995ean itxi zuten Zubietako eskola, haur gutti zegoela arrazoituz. Baina ordurako bazen eskola ttiki eta handiaren arteko eztabaida gurasoen artean. Egun, ikasleak Doneztebe eta Iturenara joaten dira. Eskola izandakoa erabilerari nitzeko tokia da orain: helduen tailerren txokoa, musikariaren proba tokia, haurren jolastokia...

riake-postaz ezetza jakinarazi zidan». Alkateak eskutitzez Zuzendari Nagusiari azalpenak eskatu zituztionean honek telefonoz deitu zion, «justifikatu ezin dena justifikatzeko; irizpide aldaketa egon zela eta orain zortzi ikasle behar zirela, eta ez bortz».

Horraino eman du gaiak. Eskola irekitzeko aukerarik gabe utzi du Gobernuak Zubietan eta Dominguezek hitzetan, «orain egoera lasai edo geldirik dago». Nafarroako Parlamentuak Landa Eremuko Eskolen aldeko Dekalogoaren onartu eta sinatu zuela ere oroitarazi du, «baina gure kasuan ikusi bezala, gero ez dute aurrera eraman». Dekalogoan, hala nola, ikasle kopuru zehatz batekin eskolak irekitzeko konpromisoa jasoa dago herriak hala eskatzen badu. Horrekin batera, herriak bizirik mantentzeko zerbitzu publiko gisa ulertu eta etekin ekonomikoan gaintetik beharrezko inbertsioak egitea ere bilatzen du. Etorkizunera begira, zinegotziak garbi du «indar haundiena herriak eta familiek dutela. Udalak laguntzen ahal du, baina familiek proiektuan sinetsi eta horren alde lan egin behar dute». Bere irudiko, «eskola ttikiak altxorrik dira, herriak bizirauten laguntzen dute, eta irekita mantentzeko Gobernuaren laguntza ezinbertzekoa da».

HERRIETAKO ESKOLAK

Zer gertatu da herrietako eskolekin?

ANIZ

• **1974. urtean** itxi zituzten Anizko eskolako atreak, nahiz eta jendea erabakiaren kontra agertu. Hamahiru bat haur omen zeuden orduan, baina ixteko arrazoia haur gutti zeudela izan omen zen. Eskola itxi eta lehenbiziko urteetan Zigako eskolara joaten hasi ziren haurrak, baina bi urteren buruan Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxerat igortzen hasi ziren, autobus zerbitzua, jangela... zerbitzu gehiago zeudelakoz. Berez, eskolarik ez zuten herriei dagokien eskola Elizondokoa da.

BERROETA

• Bere garaian eskola eta irakaslearen bitzita izan zen eraikinean, gaur egun Bartzategia eta aterpea daude, eta medikua-
ren kontsulta ere izan zen duela urte batzuk. Haur eskasiagatik **1989an** itxi zuten Berroetako eskola, bortz ikaslerekin. Duela 19 bat urte, haur aunitz zirela eta, berriz ireki nahi izan zuten, baina bertan behera gelditu zen ahalegina. Gaur egun, Almanoz eta Zigako eskoletara eta Baztan Ikastolara eta Elizondoko eskolara eramaten dituzte Berroetako haurrak.

ELBETE

• Elbeteko lehendabiziko eskola elizaren gibeletan egon zen; oraindik ere irakur daiteke bertan *escuela de niños*. Baina horren ondotik bertze eskola bat ireki zuten, gerora Baztan Ikastola izan zena. Eraikin horrek gaur egun bertzelako erabilpena du. Beheitiko solairua batzartegi gisa erabiltzen dute elbetearrek eta goiko solairuan herritar batzuek elkarte bat sortu dute. Herriko neska-mutikoak, berriz, Elizondoko ikastetxetara joaten dira.

LEKAROZ

• **1983an** itxi zuten Lekarozko eskola, haur kopurua tikiak zela eta Elizondotik hurbil zegoela argudiatuz. Gainera, garai hartako irakasleak lekualdaketa eskatu omen zuen, eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko eta kontrako iritziekin eztabaida piztu omen zen. Gerora, eskola berriz irekitzeko saiakerak bat baino gehiago egin dira, horietan azkena aurten, baina Nafarroako Gobernuak ezezkua erantzun die, ikasle gutti direla erranez. Eskola izandako eraikina, gaur egun, batzarrak egiteko erabiltzen dute.

ARANO

• Udaletxean, Suro auzoko baserrietan... Txoko bat baino gehiagotan eduki izan dute Aranon eskola, eta azkena Maisuenean, San Roke elkartearen gaineko bizitzan. Egun, ordea, ez dago eskolarik. Adin bereko haur nahikorik ez zegoela eta, **1970/1971n** eskola itxi zutenetik Goizuetara joaten dira. Goiz mugitu behar dute horretarako: 08:10ean hartzen dute Surokoek autobusa eta 08:30ean herrikoek. Eskolaz kanpoko ekintza asko ere Goizuetan dituztenez, etxeraterako berandutu egiten zaie maiz...

DONAMARIA

• Donamariako eskola **1975/1976. ikasturtean** itxi zuten, Malerrekako eskola kontzentrazioa Donezteben eraiki zutelako. Geroztik neska-mutikoak Doneztebera joaten dira. 07:30ean ernatzen dira autobusa hartzeko, baita hiru urtekoak ere. Herritarrek diotenez, eskola itxitakoan herria hilik gelditu zen, eta gainera, ekitaldi guttiago antolatzen dira eta jendea guttiago inplikatu da. Eskola izan zen eraikinak gaur egun ez du erabilpenik, abandonatua dago.

ELGORRIAGA

• Esteban Mitxelena herritarrek emandako diruari eta lur-zatiari esker ireki zuten 1929an Elgorriagako eskola, eta irekia egon zen **1973ra** arte. Orduetik, ordea, Doneztebeko eskolara joaten dira neska-mutikoak eta bere garaian eskola izan zen eraikina kultur etxe bailitzan erabiltzen dute: ikastaroak eta erakusketak egiteko erabiltzen dute goiko solairua eta bigarren solairuak 18 urtetik beheitikoentzat eta goitikoentzat bi gela ditu. Lehenbiziko solairua Zorroilo elkarteak errentan hartua du.

ERATSUN

• Eskualdean itxi duten azken eskola Eratsungoa da. Herritarren nahiaren aurka **2011/2012. ikasturtean** itxitakoa. Hiru egunez 1.200 sinadura ere bildu zituzten eskola ez ixteko eskatuz, baina ez ixteko guttienez bortz ikasle behar zirela adierazi zuten Gobernutik, eta ondoko urteetan haur gehiago izanen zirela jakin arren, bereari eutsi zion. Eratsungo haurrak Doneztebera joaten dira geroztik; kurbaz beteriko 18 kilometroko bidea egiten dute joateko, eta bertze horrenbertze bueltan.

EZKURRA

• 1914an irekitako eskolak ehun ikasle baino gehiago izan bazituen ere, **1999an**, ikasle eskasiaren ondorioz, itxi zuten. Geroztik Leitzako eskolara joaten dira, autobusean 22 kilometroko joan-etorria eginda. Eskola izan zenak egun ez du erabilpenik, Udalak materiala gordetzeko erabiltzen duen beheko solairua kenduta. Erabilpenaz hainbat egitasmoz hitz egin bada ere, ez dira aitzinera atera. Duela urte batzuk teilatua konpondu eta kanpotik margotu eta txukundu zuten subentzio batekin.

OIZ

• Herrian diotenez, Donezteben eskola kontzentrazioa eraikitzearen ondorioz, **1974. urtean** itxi zuten Oizko eskola. Eta inguruko herrietako neska-mutikoak bezala, Doneztebeko eskolara joaten dira geroztik, Donamariatik datorren autobusa hartuta. Herriko haurrek bertze herrietako lagunak egitea dakar horrek, baina aldi berean, kanpora joatea eta herrian girorik ez sortzea ere bai. Gaur egun, eskola izan zenaren lekua banatua dago Herriko Ostatuaren eta elkartearen artean.

URROZ

• Bere garaian eskola eta irakasleen bizitzak hartu zituen eraikinaren tokian, gaur egun, frontoi estalia dago, 1994-1995 urteetan egina. Eskola ordurako itxia zen, inguruko herrietako ikastetxeak bezala, **1973-1974** urteen bueltan. Donezteben kontzentrazioa eraiki eta herrietako ikasleak harat bideratzeko itxi zuen Nafarroako Gobernuak. Geroztik Doneztebera joaten dira haurrak, autobusez. 1984-1985 urteetan eskola berriz irekitzen saiatu zen Udala, baina haur gutti zegoela erantzun zion Gobernuak.

GAZTELU

• **1973/1974. ikasturtean** itxi zuten Gazteluko eskola, Donezteben eskola berria ireki zutelako eta Gazteluko irakaslea harat joan zelako. Geroztik, Gazteluko neska-mutikoak Doneztebeko eskolara joaten dira. Autobusean egiten dute hamar kilometroko joan-etorria, hamar minutu joateko eta bertze horrenbertze etxeratzeko. Garai hartan eskola izan zenak gaur egun bertzelako erabilpena du, herriko ostatua da, hain zuzen. Garai hartako ostatua, berriz, eskolaren ginean zegoen.



Nire txanda
Joseba URROTZ

Mundua konpontzen

Hemen naukazu berriz pulpitutik predikuan, gehienetan bezala, gauzak nola izan behar-ko luketen, zuzen eta gizalegez, adierazten. Beldur naiz bertzeen aferak nola konpondu dakigunok, eta maiz hori azaltzen aritzen garenok, ez ote dugun lan hori hartzen gure etxe barreneko trapu zikinak begi bistatik kentzeko.

“Politika”, grekera zaharrean, “zibila”, hiriaren antolakuntza eta hiritarraren aferei dagokiena, giza-banako libreez osatutako gizarteak dituen elkarbizitza arazoak konpontzea helburu duen moralaren adar bat omen da. To!

Eta inor baldin bada bertzeen, hots, gizarte osoaren aferetaz arduratzen denik, hori politikaria da, berdin udalkide edo ministro.

Hortaz, galdera hau sortzen zaio morroi huneri: politikan dabilenak (edo ibili garenok), bertzeen arazoak konpontzeko nahi edo prestutasun horren atzetik, bere (gure) arazoei bizkarra ematea ote du (dugu) akaso ustekabeko nahia?

Eztakit, hala bada edo ezpada, argitasuna eskatuko dugu, adimena izan dezagun gure politikariak zuzen aukeratzeko. Hala bedi!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Super Julius

Ez naiz inor aldaretara igotzekoa, baina Julio Sotok txapelketan eta finalean egin duena...

Galdutako anaiaren itzala izan du beti ondoan, baina halere bere baitan bildu eta bertso bikainak aireratu ditu. Azken agurrean, ur ttantta bat edan, begiak malkoz xukatu eta amaren kandelei, aitaren solasei, denen maitasunari kantatu zien. Zaila da bertso bakarrean gehiago adieraztea.

Nabarmentzekoak



Mikel ALBISU
Baztan-Bidasoa Turismo

Bertziko Partzuergo ordezkatuko duen Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoa sortu dute elkarte pribatuek. Beintzako Ostatuko arduraduna aukeratu zuten presidente batzarrean.



Koteto EZKURRA
Martxoan ere onena

Otsailean bezalaxe, martxoan ere erremontelarik onena izendatu zuen Oriamendi enpresak. Ez zuen partidarik galduta eta, hau idazterakoan, hamar egin dituzte segidan irabaziz.



Arkaitz VICENTE
Ordiziako Ferian saritua

Sunbilloko Epetxeneko bordako Lizun gaztandegikoek hamargarren urtez lortu dute Idiazabal Jatorri Izendapenaren erregularatasunaren saria. Ordiziako Ferian jaso zuten garaikurra.

Atzera begira → 1995-IV-20 / TTIPI-TTAPA 156 zk.



Bertsolari txapelketa nagusi bat irabazi zuen lehen emakumea

Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen duela 20 urte Estitxu Arozena le-sakarrak, sekulan txapelketa nagusi bat irabazitako lehen emakumea bihurtuz. «Bertsolaritzan berdintasunerako lehen pausuak ematen ari gara» adierazi zion Ttipi-Ttapan, txapela buruan zuela. 20 urterekin, ordura arte Nafarroako txapela irabazitako bertsolari gazteena ere bazen eta alde horretatik, bertsolari gazteek eman zezaketinari buruz galdetutakoan, «aportatzen ahal dugun gauzarik oinarritzkoena irautea da, orain arte hori ere dudatan paratzen baitzen Nafarroan, eta gero bertsolari bakoitzak aportatu dezakeena», erantzun zuen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZZENASOIA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Bertsolariak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Martxoaren 15ean, igandearekin, Burlatako Kultur Etxean jokatu zen Nafarroako Bertsolarien azken kanporaketa. Jokoa ze goen finalera igarotzeko azken bi sailkatuen izenak. Partaideak sei ziren eta beren izenak honako hauexek: Eneko Lazkoz, Miel Mari Elozegi Luze, Oskar Estanga, Aritz Saragueta, Saioa Alkaiza eta Oier Lakuntza. Azkenean, Eneko Lazkozek eta Oskar Estangak lortu zituzten Elizondoko finalerako txartelak.

Saioa entretenigarri, arin eta interesgarria gertatu zen, baina, gaur, egia esan, nire asmoa ez da hitz egitea bertso saio edota bertso lehiaketari buruz, alegia, ez dut asmorik kritika egiteko, baizik eta beste aspektu bat jorrazteko.

Goiago esan dudana bezalaxe, egun hartan partaideetako bat Oier Lakuntza mutil prestatua izan zen.

Euskal Wikipedian irakurri ahal den bezala, Oierrek Wolfran sindromea omen du, eta horrek, besteak beste, entzumen eta ikusmen arazoak sortzen omen dizkio, baina, hala eta guztiz ere, Oier gaur egun kimikaria, ikerlaria eta bertsolaria da beste gauza askoren artean; ez du meritu makala.

Dena dela, Burlatako saio hartatik, neronek beste kontu bat azpimarratu nahi dut, hots, han ikusi genituen gai jartzaile eta gainerako bertsolari guztien

aldetik, antolakuntza, koordinazioa eta kolaborazioa Oierri laguntzeko mikrofonoraino iristen, gaiak ulertarazten, aulkiraino itzultzen, ura eskuratzten, eta abar. Dena begirune handiz, naturaltasun osoz eta duintasun guztiarekin, batere paternalismo, gutxiespen eta errukirik gabe; keinu arraririk egin gabe. Kartzelako gaian, tarteka, beste bertsolariren batek, bisitaren bat ere egin zion Oierri, galderaren bat egiteko haren saioari buruz eta animoak emateko.

Burlatako jardunaldian ikusi genuena izan zen, adimen lehia garbia eta aldi berean lankidetzeta, taldea bat eginik, bertso saioa egokia izan zedin. Laburbilduz eta bukatzeko, neronek esanen nuke, saio hartan, gizatasun ikasgai polit bat eman zigutela, oholtzako guztien artean.

«Burlatako jardunaldian ikusi genuena izan zen, adimen lehia garbia eta aldi berean lankidetzeta, taldea bat eginik, bertso saioa egokia izan zedin. Laburbilduz eta bukatzeko, neronek esanen nuke, saio hartan, gizatasun ikasgai polit bat eman zigutela, oholtzako guztien artean.»

Lesakako EAJ eta euskara

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Lesakarra, euskalduna eta euskaltzalea naizen aldetik, harrিতa utzi nau gure herriko EAJk bere azken *Batzoki Boletin*-ean euskararen inguruan defendatu duen jarrerarekin. Kexu da EAJ, zer, eta Lesakako Udalak erabaki duelako euskara bihurtzea bere funtzionamendurako hizkuntza. Bertzeak bertze, EAJri ez zaio ongi iduritzen Euskararen Normalizazio Plana eta horri dagokion txosten juridiko bat bakarrik euskaraz idatzita izatea, eta ez zaio ezta ere ongi iduritzen udaleko informazioa modu naturalean euskaraz ematea, eta gaztelaniaz nahi duenak berak bere kabuz eskatu behar izatea. Baina aski deigarria da esaldi zehatz batean erraten duena: zehazki, “gure eremuko hizkuntza ofizialen oreka” mantentzeko beharraz mintzo zaigu, hau da, euskara eta gaztelania parean paratuta, beraz; eta “lesakarren zati handi baten aurkako diskriminazioa” ere aipatzen du, hau da, ustez erdaldunak diskriminatuta leudekeela. Iritzi horiek UPNk, PSNk edo bertze alderdi espainolistaren batek eman izan balitu, ez luke komentario berezirik merezi, akaso. Haien ideologiaren parte da gaztelania nagusi mantentzea euskararen gainetik. Baina kontuan har ditzagun hainbat ezaugarri: Lesakak, existitzen denetik, euskara izan du bere hizkuntza; hamar lesakarretatik zortzi euskaldunak dira; EAJ, guk dakigula, alderdi abertzale bat da eta gaztelaniaz *Partido Nacionalista Vasco* du izena. Alderdi abertzale batek bilatu beharko luke euskara izatea Euskal Herriko erreferentziatzeko hizkuntza. Hori lortzeko, euskara eta gaztelania ezin dira berdintzatatu. Gaztelania da hizkuntza handia, boteretsua eta kanpotik inposatutakoa. Euskarak pauso ausartak behar ditu garai batean izan zuen espazioa berreskuratzeko, eta horietako bat da udal bat bezalako erakundeek hizkuntza nagusitzat hartzea. Hori beti egingarriagoa da hamar biztanletik zortzi euskaldunak dituzun herri batean; ez gaude ez Iruñean, ez Garesen, ezta noski Cascanten ere. Abertzale deitzen diren alderdiak guttieneko horretan ados etorri beharko lirake, baina iduri du Lesakan ez dela hori gertatzen. EAJren ikuspegia kezagarria iduritzen zait, hizkuntzen arteko berdintasunaren izenean bai baitakigu beti zer pasatzen den. *Batzoki Boletin* emateko moduak berak erakusten du Lesakako EAJk ze ikuspegi duen bere herriko hizkuntzarekiko: gaztelania da hizkuntza serioa, balio duena, eta euskara testimoniala baino ez da, vasco izatearen diferentzia hori markatzen duena, baina deus gutti gehiago. Seguru nago Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herri euskaldun bakar batean ere EAJk ez lituzkeela halako gauzak erranen. Are larriagoa da alderdi abertzale batek ikuspegi hori izatea, non eta Nafarroan, denok dakigunean UPNk nola esutzen duen euskararen aldeko edozein ahalegin. Nola egon liteke kezkatuta alderdi abertzale bat Nafarroako eremu euskaldunenean ustez gaztelania ez delako errespetatzen? Geroa Baik babesten ditu Lesakako EAJk euskararekiko dituen planteamenduak? Zail egiten zait hori sinestea. Eta Lesakako EAJk babesten du Eusko Jauriaritzak berriki hartu duen jarrera? Aktak euskara hutsean egiten dituzten udalak babestuko baititu Carlos Urkijo Espainiako Gobernuko ordezkariaren salaketan aitzinean. Zeinekin dago Lesakako EAJ: bere alderdiaren Jauriaritzarekin, edo Urkijorekin?



Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

MEKONA

MEZENASGOA KULTURA NAFARROA


Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

2015EKO
ERRENTA
AITORPENEAN
BERRESKURATUKO DITUZU



Deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **bagoaz@ttipi.eus** helbidera

Prentsatik bildutakoak



«Batzutan, nerabezaroak berekik dakarren prozesu identitarioaren ondorioz, zure ingurukoa baztertu eta nahiago duzu berze lekuetako musika aditza, eta gauza bera gertatzen da literaturarekin ere. Garai hartan, nere jatorri xumeari uko egiten zion nere zati batek eta gaur egun aldiz, harro nago, hainbat eskaini nauten pertsonak ohoratzeaz».

Hasier LARRETxea
Arraiozko idazlea
D.NOTICIAS 2015.03.28



«Mendebaldeko European kokatutako euskal estatu bat irudikatuta, ez zen zaila pentsatzea hemen ere ezkerreko borroka armatu ez-abertzale bat izatea, Grezian, Italian, Alemanian izan den bezala. Ez dut Euskal Herri idiliko bat imajinatzen, baizik eta gatazkaz beterikoa. (...) Estatu propioa izanda ere gerrak eta gatazkan izanen genituzke».

Mikel RODRIGUEZ
Lesakako idazlea
BERRIA 2015.04.01

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Beti bilaka ari den norbait naiz.

Zein afizio dituzu?

Margotzea, Irakurketa, paseatzea, musika entzutea, begiratzea...

Margorik gabeko bizitarik posible litzateke?

Gogor xamar baina bai, bilatuko nukeen barrenak adierazteko beste modu bat, idatziz edo...

Zergatik eta zertarako margo-tzen duzu?

Beharrezkoa dudalako eta nire barrenak ezagutzeko, noraino iristeko kapaza naizen jakiteko.

Udaberria omen artisten urtaroa...

Niretzat denak egoki, urtaro bakoitzean argi bat eta horrekin batera energia eta sentimendu desberdinak agertzen dira, une bakoitzak badu bere xarma.

Zer izaten duzu inspirazio iturri?

Uff, dena eta ezerrez. Argi bat, mugimendu bat, hutsune tarte bat...

Arteari aitortzen zaio dagokion balioa?

Segun eta non, alde haundiak daude. Arlo batzuetan bat ere ez eta bestee-tan gehiegi.

Adibidez, zenbait margolanengatik ordaintzen diren dirutzak desfasatuak iruditzen zaizkit. Beste aldetik oraindik bizitza praktikoan ez duela ezertarako balio uste da aunitzetan eta artea bizitzaren xoko guztietan dago.

Margotu duzun koadrorik bereziena?

Momentuan egiten ari naizena izaten da bereziena. Beti lehena izango balitz bezala jartzen naiz koadro aurrean edo saiatu behintzat!

Gustura margotuko zenukeena?

Pila bat, ze pilatu egiten zaizkit barnean askotan eta denbora falta dut beti ikusten ditudan aukera guztiak gauzatzeko.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Pertsonalki begiratuta ongi, ze maite dudana egiten dut eta niretzat horrek balio handia du.

Baina orokorrean nahiko kaxkar, lan haundia daukagu gizakiok mundu hau orekatzeko, dena hankaz gora dago eta!

Amets bat?

Puska, baina hasteko ez dadila inor gosez hil. Are gutxiago egunero ehundaka kilo janari botatzen den mundu batean!

Oaia PERURENA → Margolari beratarra

2015 Udaberri-udako moda gehigarria

ttipi-ttapa | 636 zk.
2015.04.16

9

ORRAZKERA-MAKILLAJEA

Konbinaketa egokiaren bila

Udaberria heltzen denean, neguko lozorrotik esnatu ohi da gure azala eta bere alderdirik ederrena agerian uzteko sasoa izaten da. Makillaje pittin baten laguntzaz baliatu eta eguraldi onak animatuta, orrazkera berriak probatzera ere ausartu zaitez. Azken emaitza bikaina izan dadin, bien arteko konbinaketa egokia lortzea izaten da garrantzitsuena. Segidan dituzue gomendio batzuk.

EGUZKIAREN DIZDIRA

Utzi eguzki izpiei zure azala goxatzen, hori bai, beti ere babes neurriak kontuan izanda. Aurreko denboraldietan aurpegi zurixkak zeuden modan, baina 2015eko udaberri-udan tonu beltzaran naturala lortzea izango da helburua. Dena den, eguzkia lainopean ezkutatu bada, ez zaitez kezkatu, urre-koloreko dizdirak gehitu ditzakezu eta makillajearen bidez. Eta tenperatura igo orduko adats luzeak traba egiten badizu, frexko bezain dotore ibiltzeko buruaren behekaldeetik abiatu eta goikaldean amaitzen den trentza bat eginda osa dezakezu *looka*.

NABARMENDU EZPAINAK

Larrosa kolorekoak, gorriak edo *glossa*-ren disdira gehituta, begirada guztien jomuga ezpainak izatea da helburua. Malba kolorea da proposamen indartsuenetakoa, laranja eta gorriaren lekukoa hartzeko asmoz datorrena. Ezpainak are gehiago nabarmentzea lortu nahi baduzu, ilea ondulatu eta solte eramatea gomendatzen dute adituek edo ballet dantzariak egin ohi duten motots estua ere primeran geratzen da.

NATURALITASUN BILA

Inperfekzioak estali eta argitasunez betetako aurpegia lortzea da adituek egiten duten bertze proposamena, maisailak margo arrosekin ongi markatuta gaztetako xalotasuna gogoraziko duzu. Ile lisoarekin konbinatu eta marra albo batean egiten bada emaitza borobila lortzen da.

BEGIRADAREN INDARRA

Begirada indartzeko, kolore leun eta freskoak daude modan: urdin iluna adibidez begiaren forma eta kolorea edozein delarik ere, primeran geratzen da. Ile-bildu baxu eta informal batekin konbinatuta itxura *sexy* eta *erromantikoa* lortuko duzu.

ROCKEROETAN ROCKEROENA

Begietako itzal metalizatuak adituen ahotan dabilta denboraldi berrian. *Smokey eye* efektua lortuz edo purpurinarekin nahasita, tonu gris eta marroiak nagusituko dira. Eta ile motza baduzu, tupe bat egitera animatzen zaitugu, 50.hamarkadako rock izarren itxura gogoraziko duzu horrela.



Burbuila
estilista

Bittiria, 36 | LESAKA
T. 948 638 004



edr'gunea
Ainhoa Azpiroz
Estefizista

Laserra
Depilazioak
Solariuma
Aurpegiko tratamenduak
Gorputzeko tratamenduak
Makillajea
Opari baleak
Begien edertzea

INSTITUT
ESTHERM
PARIS

Elbarren 67 behe • LEITZA
T 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es



Kris
ileapaindegia

948 580 025
Giltxaurdi, 14
ELIZONDO



Miren
ileapaindegia

Aurretik
ordua eskatu

T. 948 599 079
Marienea ZUGARRAMURDI

haurrak

ARROPA KONFEKZIOAK
MARI CARMEN



Brullio Iriarte 22 (Antxitonea ondoan)
ELIZONDO - T 948 580 883

haur arropak eta oinarrizkoak
ZAIROZ GU BISTATZEREA!




KULUNKA 201409majiil.com
TEL. 949 513 620
URRATEGI 90721010 KALEA 1, BEHEKO 4. LEHIAZ 31990

www.kattagorria.com



kattagorria
leintzeria mertzeria

Behoko plaza, 10 LESAKA • 948 627 514

0-3 URTE



Udaberri bizi-bizia...

Euritako oinetakoak baztertu eta sandaliak eta udako zapatilak jartzeko desiratzen egoten dira etxeko ttikienak. Bukatu dira berokia ezin jantziz emandako minutuak eta heldu da eguna luzatu eta kalean jolasean orduak pasatzeko garaia. Modan ere nabari da urtaro aldaketa; kolore bizien alde egiten dute adituek, tonu pastelak alboratu gabe eta marinel itxurako looka eta estanpatuak bueltan datoz. Jarraian dituzue, moda modan dauden zazpi joerak:

UDABERRI TROPICALA

Haur eta gaztetxoei zuzendutako proposamenen artean, estanpatuak nabarmentzen dira, Euskal Herriko udaberria ere, udaberri tropikala bihurtuz. Loreek, marrek, pasley eta arty estanpatuek apainduko dituzte soinekoak, kamixeta mauka motzak, bermudak, kazadorak eta algodoizko jantziak. Koloretako lokarriak dituzten zapatilekin, leggingekin, diadema loredunekin edo barrenak bilduta dituzten galtzekin konbinatzea gomendatzen dute.

GOXOKIAK BEZAIN GOXO


Pastel koloreak, lore edota txorien marrazkiekin konbinatu dituzte aurten diseinatzaileek neskatoentzako soineko eta atorretan. Puntuzko jertseekin eta miniekin konbinatuta look dotorea lortzen da. Mutikoentzat ere pastel koloreko galtza motzak edota atorrak gomendatzen dituzte eta txuriarekin konbinatuta, goxotasun hori areagotzea lortzen da.

ZITRIKOEN INDARRA

Laranja, limoi edota lima fruituen kolore biziek tindatuko dituzte haurrentzako jantzi eta osagarriak. Azala beltzarantzen hasi orduko primeran ematen duten koloreak dira. Look honi argitasuna gehitzeko, jantzi txuriekin konbinatzea proposatzen dute. Zitrikoez gain, bertze kolore batzuk ere nabarmenduko dira koral edo urdinxka esate baterako.

MARINELEN PARE

Marinel itxurako lookak urteak daramatza gure artean eta badirudi ez duela albo batera geratzeko asmorik. Udako jantzietan klasiko bihurtu da dagoeneko, urte batetik bertzera aldaketa txikiak proposatzen dituzten arren. 2015ean, urdin iluna, gorria eta txuria dira gomendatzen dituzten oinarrizko koloreak eta urre kolorea baliatzen dute josturak, botoi edota ilerako diademetan. Mutikoen armairuan galtza motzak eta puntuzko jertseak izanen dira nagusi. Oinetakoetan ere ez dugu atzenduko marinel ukitua: lonetazko zapatila eta sandaliak marra eta aingurekin apaindu dituzte.



MENDA KOLOREA


Kolore pastelaren artean menda kolorea da aurtengo denboraldiko aposturik seguruenetakoa. Tonalitate bizi edo apalagoak erabili litezke eta koadrodun atorretan askotan ikusiko dugun kolorea da. Orokorean, kolore berdeak ere indarra hartuko du.

IZARRAK HAN ETA HEMEN

Pastel koloreak erabilia, izarrak han eta hemen jartzeko apustua ere egin dute diseinatzaile aunitzek. Izan ttiki edo handiagoak, bakarra erdian edota tamaina desberdinetakoak konbinatuz, jantzi, oinetako eta osagarriak apainduko dituzte.

POP-AREN INDARRA

Pop-aren goraldian indarra izan zuten elementuak ere estanpatu ugaritan agertuko dira. Irudi asimetricoak, kolore biziak, izarrak... itxura urbanoa ere moda-modan dago.



Serapio Mugika, 15 | IRUN | 943 618 033
www.mirentxu.net

mirentxu

0-16 neurriko umeen arropak
8-16 urteko neska mutikoetan berezituak
Bertan eskuz egindako soinekoak
Bodyak, barruko arropa, leotardoak,
galtzerdiak, seaskak, oinetakoak

Name it · Wsp! kids · IDO · Nike
Xti · Boboli · Pangasa · Condor · Elike



Belzunequi
DESDE 1901

Emakume eta gizonezkoen moda
Etxeko arropa



Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056

Zure oinak zaintzen!

CALZADOS OINETAKOAK

Virgilio

DENBORALDI BERRIA

Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua

Santiago,32 • ELIZONDO • 948 580 209
www.calzadosvirgilio.com

Mertxe

MODA MUJER Y HOMBRE

LEHEN HONORIO TABERNA ZENA



Merkatarien karrika, 29 • DONEZTEBE • T. 948 450 437

gizonezkoak

GIZONEZKOENTZAKO JANTZIAK

Eroso bezain dotore

Udaberri eta udan termometroek goia jotzen duten egunetan jantzi eta oinetako erosoak eraman nahi izaten ditugu soinean. Badirudi moda adituek bat egin dutela eskari horrekin eta horregatik, datozen hilabeteetarako eroso bezain dotore

ibiltzeko jantziak proposatzen dituzte:

JANTZI ZABALAK

Gizonezkoen jantziak, bigarren azal baten gisara, estu-estu eramateko joera nagusitu da azken urteetan baina denboraldi honetan ez da horrela izanen. Jantzi lasaiagoak proposatzen dituzte eta gainera jantzi *sportekin* konbinatzea, kamiseta estanpatuekin adibidez. Jantzien zurruntasunarekin apurtu eta itxura *casuala* lortzea da helburua.

DUNTUZKO JERTSEAK

Puntuazko jertseak ere moda-modan daude, azpitik deus jantzi gabe, galtza dotoreekin konbinatuta looka osatzea da proposamena. Blazer grisak eta bomber estiloko txaketak ere denboraldi honetan nabarmenduko diren jantziak dira.

KOLORE BIZI EDO APALENAK

Muturreko koloreak daude modan, ez dago erdi bidekorik: kolore pastel edota bizi biziak dituzten jantziek beteko dituzte gure armairuak. Eta batzuen bizitasuna eta besteen apaltasuna nabarmentzeko, biak konbinatzea da proposatzen dutena. Laranja eta urdin iluna dira behin eta berriz ikusiko ditugunak, eta tonalitate desberdinetako berdeek ere tokia izanen dute. Denboraldiz denboraldi gertatu ohi den bezala, txuria ere behin eta berriz ikusiko dugun kolorea izanen da. Kolore neutroen artean berriz grisa, topo deituriko kolorea, nagusituko da.

OIHAL BAKEROA

Oihal bakeroa jantzi, osagarri eta oinetakoak diseinatzeko baliatu dute oraingoan. Horregatik, merkatuan eskaintza zabala dela ikusita, modako adituek bakeroa erabilia *total look-a* osatzea proposatzen dute, hau da, oinetatik hasi eta bururaino, guztia bakeroa izatea.

ZAPATILAK EZIN KENDUZ

Kirol oinetakoak, kirola egiteko baino gehiagorako balio dute. Esate baterako, *sneakers*ak moda modan daude. Gehienbat zuriak, egoera desberdinetara egokitzen diren lookak osatzeko primeran etorriko zaizkizu. Eta desagertzeko asmorik ez duen bertze klasiko bat ere buelta dator, mokasinak. Marinel itxurakoak, sport edota dotoreagoak... milaka aukera daude eta hobekien egokitzen zaizuna aukeratzea erraza izanen da.



OSAGARRIAK

Bost osagarri, bete-betea asmatzeko



Azken joerei segika ibiltzen den horietakoa bazara, bost dira ezinbestean zure armaruan eduki behar dituzun osagarriak: gerrikoa, zapia, tiranteak, pajarita eta fularra. **Gerrikoa** da gizonezkoek gehien erabiltzen duten osagarria, eta ez galtzak estutzeko premia dutelako, ukitu dotorea gehitzeko baliatzen dute askok. Kolore, ehun, forma eta tamaina desberdinetakoak topa genitzake, janzkera eta egoera desberdinetara egokitzen direnak. **Tiranteak** dira gerrikoen ordezkokoak eta urte askoan erdi desagertuta egon diren arren, indartuta bueltatu dira; ezin uka aukera ausarta denik. **Fularra** izan liteke kontrastea gehitzeko osagarririk egokiena, look casualei elegantzia gehitu edota estilo klasikoek gaztetzea lortzen dutelako, kolore eta estanpatuekin jokatzen asmatzea da gakoa. Jantzien aurrekaldeko **poltsikoan jartzen den zapia** hitzordu berezietan azken ukitu dotorea gehitzeko erabiltzen da. Atorra eta zapia kolore berekoak izatea bilatzen da eta baita korbata ere, bertzenaz apustu segurua egin, txuria aukeratu. Eta korbata baino zerbait berritzaileagoa nahi dutenek, **tximeleta** (pajarita) janzteko aukera ere badute.



ttipi-ttapako
BERRIAK
TWITTERREN ERE BAI!
JARRAI ITZAZUE GURE TXIOAK!

KAPRITXO

- Opariak
- Bitxiak
- Nesken arropa
- Mutilen arropa

LEITZA · 948 510 748



- Ramon Sanjurjo
- Roy Robson
- Fuentescapala

Serapio Múgica, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercheirun.com



emakumeak

UDABERRI/UDAKO JOERAK

70.hamarkadara bueltan...

Neguko arropa armairutik atera eta denboraldi berrikoei lekua egitea hamarkadetan atzera bidaia bat egitearen parekoa izanen da. Diseintzaileek 70. hamarkadako janzkerak izan dituzte inspirazio iturri. Estilo bohemioa gailenduko da: crocheta, flekoak, plataformadun oinetakoak eta galtza zabalak ezinbesteko elementuak bilakatuko dira.

KOLORE EZTANDA

Horia indartsu datorren kolorea da, ia-ia txuriaren pareko izateraino. Aukera ausarta da, bizia eta freskoa. Lur-kolore gorrixka eta berde militarra ere modan dauden koloreak dira. Gainera, neguko itzaletik ateratzeko, estanpatu biziak ere ikusiko ditugu nonahi.

ANTEA EDONON

Larrua izan da negu honetan gehien ikusi dugun ehunetako bat eta udaberrian ere ez da bazterrean geratuko, kolore biziz tindatu eta larruzko soineko eta gonak edonon ikusiko ditugu. Berrikuntza nabarmenena berriz, antea izanen da eta ez bakarrik osagarrietan, material hau erabiliz soinekoak, galtza eta gona motzak, txalekoak... ere egingen dituzte, ehun honekin hain ongi ematen duten flekoekin apainduta. Antea bakeroaren lehiakide izanen dela diote batzuk eta ez dago jakiterik nor irten-go den garaile, proposamenen artean bakeroa erabilita look osoa osatzea ere gomendatzen dute eta.

GONA MOTZ RETROAK

70. hamarkadan arrakasta handia izan zuten gonak berriro ikusiko ditugu karriketan: gerra altu eta kanpai-formakoak. Erdialdean botoiak baldin baditu itxura retroagoa lortuko duzu.

SILUETA LUZEXKAK

Izartararaino iristen diren ator luzeak, tunikak eta soineko arinak daude boladan. Aukera erosoak izateaz gain, silueta luzatzen dute eta ongi gelditzen dira gorpuzkera gehienetan.

IZARRAK, LOREAK ETA MARRAK

Izar eta loreek apainduko dituzte denboraldi honetako jantziak. Tamaina desberdinetakoak, baita handi eta txikiagoak konbinatuz ere. Loreen artean margaritak izaten dira gehien erabili izan direnak, baina bertzelako lore koloretsuek ere garrantzia hartuko dute. Marrak ez dira inoiz atzera geratzen eta oraingoan, gainera lodiera, kolore eta norabide desberdinetako marrak jantzi bakarrean konbinatzea proposatzen dute.



TEMPTU **32€**
 Welcome to the AIRbrush Revolution

Quick Start Guide
 TEMPTU AIRbrush Makeup System

Zatoz eta MAKILLATU AEROGRAFOAREKIN

Emaitza bikainak!!
ANIMATU ETA ETORRI!

948 450 286
 Arrate Estetika Zentroa

IPINGI Santiago 88
 ELIZONDO
 T. 948 580 939
 info@ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK www.ipingi.es

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK



BEOLA-ETXEA

/ supermerkatua / bar / jatetxea /
/ lurrindenda / moda /

Ibardin gaina, 30 BERA T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



BL

arropa-denda

gizon eta emakumearentzako arropa

**UDABERRI-
UDAKO
MODA BERRIA
DAGOENeko
ZURE ESKURA!!!**

**OSAGARRI, BITXI,
BOLTSO eta
OINETAKOETAN
AUKERA ZABALA**

etorri denda berriua ezagutzera!!



LURRINGEGIAN
sekulako eskaintzak!

Bench.
smash!

Paramita...
...

SURKANA

ICHI

Refresh



DESIRE

Xti.

!Solid

DAZZ

Marte moda
T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 - DONEZTEBE

Lulu
38tik 64ra bitarteko neurriak
LARUNBAT ARRATSALDEETAN ITXIA
Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
T. 943 616 165



Almatrichi RINATTI Paris
Md'm Leyenda boretto Colbie

emakumeak

OSAGARRIAK

Azken ukitua, lehenengoa bezain garrantzitsua

Gauza jakina da poltsa, gerriko, belarritako edota lepoko bat jantzita pertsonalitatea gehitzen diogula gure itxurari. Gainera jantzi bat egoera formal edota informal batera egokitzea ahalbidetzen dute. Azken ukitua, lehenengoa bezain garrantzitsua delako, segidan duzue datozten hila-beteetarako ezinbesteko osagarrien zerrenda:



HELDULEKU TXIKIKO POLTSAK

Poltsa sorbalda gainean eman beharrean, eskuetan eramanen duzu denboraldi honetan, bandolerak desagertu eta helduleku txikiko poltsek beteko baitituzte erakusleho guztiak. Eta tamainak ez du inporta, handi edo txiki denak eskuan.

LEPOKO LUZEAK

Zintzilikario handi edo txikiagoekin baina denek soka luzea daramate. Albo batera geratu dira lepoari estu lotzen diren lepokoak. Itxura etnikoa eta hippie-a duten lepoko eta belarritakoak daude modan, naturako elementuak txertatzen dituztenak.

GERRIKOA

Denboraldi berrian, gerrialdeak protagonismo berezia hartzen du. Jantzia gerrira lotzeko gerriko handiak erabili edo oihalak gerriaren bueltan korapilo baten bidez lotzea gomendatzen dute.

OINETAKOAK

Oinak ere udaberriz jantzi

Neguko galtzerdi lodiak armairuan ezkutatu eta oinak frexko ibiltzeko sasoa da. Aurtengoan ere erosotasuna eta dotorezia eskutik doaz diseinatzaileek emakumeentzako egiten dituzten proposamenen artean. **Lokarriak dituzten bailarinak** dira egunerokoan gehien ikusiko ditugun oinetakoak, dotore edo *sport* agoak, egoera desberdinetan dotore ibiltzeko modua izanen duzue. **Gladiadore itxurako sandaliak** ere bueltan datoz, baina oraingoan larruzko tirekin izan beharrean lokarriak darमतate orkatiletik hasi eta belauetaraino. Normalean ez daramate takoirik, baina badira takoi pixka bat ere gehitu dietenak. **Zuekoak eta plataformak** dira denboraldi honetako ezinbesteko beste aukera, kanpai-formako galtza zabalak jantzteko inongo zalantzarik gabe oinetako aiprosenak.



KULTURA → APIRILAREN 26AN IZANEN DA EGUN HANDIA

Nafarroaren Eguna girotzeko Kulturaldia prest dute Baigorriin

Ruper Ordorikak kontzertu akustikoa eskainiko du igande honetan Ortzainen



UTZITAKO ARGAZKIA

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, apirillean Kulturaldia antolatu du Baigorriko Basaizea Kultur Elkarteak. Hilarren 26an Nafarroaren Egunarekin borobilduko dute egitaraua, baina aitzinetik hainbat ekitaldi izanen dira.

Apirilaren 19an, igande arratsaldeko 5etan, kantaldi akustikoa eskainiko du Ruper Ordorikak Ortzaineko Goicoechea Lur ontzi saltegiari. Sartzea 10 euro gostako da.

Apirilaren 25ean, larunbatean, 21:00etan Baigorriko elizan, *Guk ta Guk-tarrak* ikusgarri berezia eskainiko dute, Kulturaldian bakarrik emana izanen dena, GUKen kantu zaharrak molde berriak emanak. Aire ahizpak, Xendarineko ahizpak, Astezkenekoak, Baigorriko gaiteroak, Hertz ganbara orkestra (Xare laborategia), Sustrai Colina eta Fredi Paia aritzekoak dira. Sartzea 15 euro.

Hertz ganbara orkestrak parte hartuko du *Guk ta Guk-tarrak* ikusgarri berezian.

Apirilaren 26an, berriaz, Nafarroaren Eguna ospatuko dute Baigorriin. Goizean elizako plazan eginen dira ekitaldiak. 10:30ean txalaparta; 11:00etan bertsolariak; 11:30ean dantza ikusgarria; 12:00etan Baigorri, Kilimon eta Txantreako ziganteak, Altsasu, Otsagabia eta Arrolako dantzariak, Erriberako Paloteadoa, Basaldunak, Basaizearen hitza eta Karmelearen irrintzina. 13:30ean Jauziak Uztarizeko txararangarekin, Ezpela, Muttiko Alaiak eta esku lanen erakusketa.

14:30ean bazkari nagusia eginen da Pentzean eta bazkalondotan, Uztaritze, Kuxkuxtu eta Ezpela txarangak, trikitilariak, kantariak, gaiteroak eta bertze animazioak izanen dira.

Plaza Nagusian eta inguruan, 12:30ean Klink ariko da, 14:00etan Tek elektrotxaranga eta



UTZITAKO ARGAZKIA
Ruper Ordorikak kantaldi akustikoa eskainiko du igande honetan Ortzaineko Goicoechea lur ontzi saltegiari.

Oxabi, 16:30ean Muttiko Alaiak eta 18:00ean Ezpela eta Kuxkuxtu.

Plaza Nagusian, 14:00etan H-Den ariko da, 15:00etan bertso saioa Odei Barroso, Julio Soto eta Iñaki Alemanekin; 16:00etan Leihotik (Etorkizuna Kontzeptuak); 17:00etan dantza ikusgarria, Altsasu, Otsaga-

bia eta Erriberako dantzariarekin; 18:30ean Jauziak Ezpela txarangarekin; 19:30ean Kiki Bordatxo eta 21:30ean erromeria.

Xokoan kontzertuak izanen dira. 19:00etan Xutrik taldea; 21:00etan Itziarren Semeak; 23:00etan Holako eta 01:00etatik aitzin, Tirri&Tery DJ.

TURISMOA

Aisialdia eta Gastronomía Gida argitara eman du aurten ere Ttipi-Ttapak

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bidasoa eta Xaretako Aisialdia eta Gastronomía Gida argitara eman berri du Ttipi-Ttapak. Bertan, inguru honetako 60 bat jatetxe, ostatu, komertzio eta aisialdirako enpresen eskaintzaren berri ematen da 40 orrietan, bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak eta zerbitzuak azalduz hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Herri bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuen berri ere ematen du, hala nola, frontoia, igerrilekua, supermerkatua, gasolindegia, autobus zerbitzua, lo egiteko tokiak, turismo bulegoa, osasun etxea edo farmaziarik baden jakinaraziz. Baztan-Bidasoaldeko mapa bat ere badu.

6.000 ale argitaratu dira, turistak ibiltzen diren tokietan banatu direnak, jendeak har dezan eta bazkaltzeko edo afaltzeko plana egiten lagungarri izateko. Era berean, jatetxe-ostatu bakoitzean ere utzi dira ale batzuk bezeroen artean banatzeko.



6
LOTE
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com



GIZARTEA

TURISMOA → BERTIZ ARTZUERGO TURISTIKOAREN LEKUKOA HARTU NAHI DU

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoa sortu dute

Beintzako Mikel Albisu da presidentea

TTIPI-TTAPA

Bertizko Partzuergo Turistikoaren osatzen zuten elkarte pribatuak martxoaren 12an egindako Asanbladan bere bazkideei turismoa elkar lanean garatzen segitzeko proiektua aurkeztu zieten: "Baztan-Bidasoa Turismoa" izeneko elkargoa, estatutuak eta 2015 urtean zehar garatzeko hainbat proiektu eta proposamen. Martxoaren 31n egin zuten aurkezpen publikoa Bertizen.

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak Bertizko Landa Turismo Zentroan du bere egoitza (orain arte Partzuergoarena zena), Nafarroako Gobernuarekin zesioa hitzartu eta gero. Elkargo berria bertz elkarrekin osatzen dute: Hiruak Bat Landa Etxeak, Apartamentuak, Hotelak, Jatetxeak eta Zerbitzuak (Jar-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Mirentxu Goienetxe (Hiruak Bat Landa Etxeak), Belen Urrutia (Hotelak), Mikel Albisu (lehendakaria), Iriber Arangoa (Zerbitzuak) eta Ruben Garate (Jatetxea), Elkargoaren aurkezpenaren.

duerak, Aterpetxeak eta Kanpinak). Elkargoak Bertiz Partzuergo Turistikoaren ikurra mantenduko du, «promoziorako egokia eta 22 urtetan Bertiz Partzuergotik egindako lan bikaina irudikatzen duelako. Gauza bera egin dugu telefono zerbitzuarekin, gure bazkideei eta bezeroei zerbitzua eta arreta errazteko». Halaxe, Bertiz Partzuergoaren web gunea mantenduko dute, baina informazioa [soa.com dominioarekin kudeatuko da.](http://www.baztan-bida-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Martxoaren 12ko asanblandan Zuzendaritza Batzordea hautatu zen, zazpi kidek osatua: lehendakaria (Mikel Albisu), lehendakariordea (Marijose Iparragirre) eta elkarte bakoitzetik kide bat. Zuzendaritza Batzordeak martxoaren 26an egin zuen lehen batzarra, estatutuei azken ukituak eman eta Asanblandan onartutako aurrekontuen proposamena

aurrera ateratzeko, «Turismo Departamentuko dirulaguntzen deialdia bertan dugu eta».

Maiatzetik aurrera Bertizko bulegoan arituko den teknikaria kontratatuko dute, hasieran egun erdiko kontratuan. «Elkargoaren atezak zabalik daude, ez bakarrik pribatuei, udalei eta bertze entitateei ere bai, Baztan-Bidasoan turismoa elkar lanean garatzeko. Epe laburrean hainbat entitaterekin bilerak egingen ditugu,

LEHENTASUNAK

- www.baztan-bidasoa.com webgunea hobetzea eta egokitzea
- Erreserba Zentrala eta Informazio Zerbitzua garatzea.
- Turismo Ferietan eta Ekitaldietan parte hartzea.
- Baztan-Bidasoan bisita gidatuak antolatzea.
- Bidasoko Bide Berdearen dinamizazioa.
- Ehizari buruzko Jardunaldi Gastronomikoak.
- Bertzelako proiektu pribatuak laguntzea eta promozionatzea.

gure asmoen berri emateko», diote.

Prozesu honetan Hiruak-Bat Landa Etxeen Elkarteak paper garrantzitsua izaten ari da, «egitasmoa martxan jartzeko lehenengo kontaktuak eta oinarri legala bere izenean egin baita, berari esker lortu baitugu orain dela 3 hilabete galdua zegoen proiektua neurri handi batean erreperatzea eta ilusioa berpiztea». Baztan-Bidasoa destino turistikoa ezaguna da, baina promozioan eta hobekuntzan segituko dute, bazkideei lehentasuna emanez. Horregatik zenbait ferietan izan dira gaurgero, eta bertze batzuetara joateko asmoa ere badute.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

FRUTAS Y VERDURAS
FRANCONKA, S.L.
FRUTAS Y VERDURAS
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis & Coro
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain · BERA · 948 630 052

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Digital + banatzaile ofiziala

GIZARTEA → EKITALDIZ GAINEZKA

Kultur Astea ospatzen ari dira Zahar Etxean

Orzegunean nafar jotak eta ortziralean bertsoak izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

San Jose Zahar Etxeko Aste Kulturala ospatzen ari dira apirilaren 13tik apirilaren 19ra eta azken urteetan bezala mota guztietako ekin-tzaz osatua dator egitarau zabala.

Apirilaren 13an, as-telehenean, Ehiza eta Arrantza elkartean hasi zuten besta, herritarrek eta bertako bazkideek bazkari eder batera gonbidatu zituzten eta.

Apirilaren 14an, asteartean 16:30etik aitzinera, taloak egiten ikasteko eta, oraindik hobe, jateko aukera izanen dute, urtero bezala Maria Mitxelenaren laguntzari esker.

Apirilaren 15ean, asteazkenean 15:00ak aldera, Bidazi elkarte ezagutzeko aukera izanen dute San Jose Zahar Etxeko bizilagunek Alkaiagan.

Apirilaren 16an, ortzegunean 16:30ean Nafarroako jotak aditzeko aukera izanen da.

Apirilaren 17an, or-

tziralean 16:30ean inguruko bertsolariak hurbilduko dira Zahar Etxera: Iban Garro, loar Tainta, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu eta Julen Zelaieta ariko da gai-jartzaile.

Apirilaren 18an, larunbatean 16:30ean mus eta oca txapelketak egingen dira herritar eta Zahar Etxeko bizilagunen artean.

Apirilaren 19an, igandean 19:00-19:30 aldera, esku pilotako porrararen sariak banatuko dituzte.

Dantza desafioak kiroldegian

12 eta 17 urte arteko gaztetxoak kiroldegira hurbilazteko programaren baitan Urdi Berak antolatuta, apirilaren 18an, Dantza desafioak saioa-txapelketa antolatu dute kiroldegian, 18:00etan hasita. Kiroldegiko kudeatzaileen asmoa, larunbat honetako ikastaroetan ikasten dutenekin, hurrengoan elkarren arteko dantza desafioak egitea da.

Maiatzaren 8an, gaueko ziklo saioa antolatu dute, 21:00etan eta maiatzaren 16an crossfit jokoak egingen dituzte 17:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kenpo Kai-aren Munduko hiriburu izan da herria

Aste Santu aitzineko asteburuan kenpo-kai arte martzialaren Munduko hiriburu izan zen herria, hiru egunez, kirol honen inguruko solasaldiak, ikastaroak eta txapelketak egin baitziren kiroldegian. 400 partehartzaile baino gehiago etorri ziren, tartean Japonia, Italia, Frantzia, Espainia eta bertze herrialdeetakoak. Takao Asai Maisuak (Asiako arduraduna) hainbat azalpen eman zituen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Musika Eskolaren Udaberriko Kontzertu bikaina

Urtero bezala, Aste Santuko oporraldiaren aitzinetik Udaberriko Kontzertua eskaini du Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak. Apirilaren 1ean izan zen jendez gainezka ageri zen Kultur Etxean.

Izen emateko eta informazio gehiagorako Toki Ona kiroldegira jo behar da, 948 630215 telefonora deitu edo bera@urdisl.com helbide elektronikora idatzi.

APIRILAREN 25EAN

Mikel Urdangarin eta Bera kantari

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 25ean kontzertua eskainiko du Mikel Urdangarinnek 20:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro. Ordu bete lehenago Bera Kantari abiatuko da.

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

JAKONE-GOZOTEGA
948 630 786
Altzate, 19 • BERA

LESAKA

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 26AN

Tantirudantza jaialdiak ehun dantzari baino gehiago bilduko ditu aurten ere

Tantirumairuko dantzariekin batera, Tolosa, Urnieta eta Lakuntzakoak ariko dira

Aitor AROTZENA

Tantirumairu Euskal Folklore dantza taldeak antolatuta Tantirudantza jaialdia ospatuko da apirilaren 26an. Herriko Tantirumairu dantza taldeko neska-mutikoekin batera, Tolosako Uda-berri, Urnieta Egape eta Lakuntzako Elai Alai taldekoak arituko dira.

Goizeko 11:00etan kalejira egingen dute taldeek bakoitzak bere aldetik. 12:00etan Zubigainekoa dantzatzeko dute herriko dantzariak eta ondotik plazan bilduko dira lau taldeak saioa eskaintzeko. Kanpoko dantzariak herrikoen etxeetara joanen dira bazkaltzera eta ardura-dun eta musikariek elkarrekin bazkalduko dute. 17:30ean plazan Po-

rru DJ-a haurrentzako erromeria izanen da.

Ezagutu Dezagun Lesaka berezia

Beti Gazte elkarteak berriz ere Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketara deitu ditu herriko neska-mutikoak. Elkar-tearen 75. urteurrena dela eta, aurtengoa berezia izanen da eta elkarteari buruzko 30 galderari erantzun beharko diete apirilaren 24a baino lehen.

Kontzertu bereziak

Nafarroako goi mailako kontserbatorioko ikasleek musika kontzertua eskainiko dute apirilaren 19an, igandean 12:30ean Harriondo Kultur Etxean. Zehazki, Olatz Rojo lesakarrak (zeharkako txirula), Raquel Ortega (arpa) eta Sergio Eslavak (saxofoia), *W.A. Mozarten flauta eta arparen-tzako kontzertua* eta bertze zenbait pieza eskainiko dituzte.

Apirilaren 25ean, be-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Musika Eskolaren kontzertua

Hiruhilekoa bukatzeko, Musika Eskolako ikasleek kontzertu dotorea eskaini zuten apirilaren 1ean Harriondo Kultur Etxean.

MAIATZAREN 10EAN

Salvador Yanci zenaren oroimenez martxa zikloturista egingen dute bigarren urtez

A. AROTZENA

Salvador Yanci zenaren omenez martxa zikloturista egingen dute bigarren urtez, maiatzaren 10ean. Iaz bezala, Beti Gazte elkarteak ez ezik, Gure Txokoa, Baztandarra, Urtxintxa, Aizan, Iganztiko Biltoki eta Erreka txirindularitza taldeek parte hartuko dute antolaketan, Udalarekin batera.

Ibilbidea 112 kilometrokoa izanen da,

rriz, larunbatean 20:00etan, Tuterako Abesbatzak kontzertua eskainiko du Harriondo Kultur Etxeko konbentuko elizan, Giltzarri Abesbatzak antolatutako emanaldian.

Lesakan hasi eta bukatu. Goizeko 9:00etan abiatuta, Lesakatik Berara joan eta berriz ere Lesakan sartuko dira txirindulariak, Sunbilla, Doneztebeko bidegurutzea, Legasako bidegurutzea, Narbarte, Oronoz-Mugairi, Ziga (Belaten barna), Irurita, Elizondo, Otxondoko gaina, Urdazubi, Zugarramurdi, Berruet Benta, Sara, Lizaietako gaina eta Etxalarren barna igaro ondotik,

Plaza Zaharrean helmugaratuko dira partehartzaileak.

Aitzinetik izen eman daiteke Beti Gazteren webgunean. Federatuek 15 euro ordaindu beharko dute eta federatu ez direnek 20 euro. Bertzela, egun berean eman daiteke izena Herriko Etxeko arkupe-tan, 7:00etatik 08:30era. Kasu honetan, federatuek 20 euro eta federatu gabek 25 euro.

Ba al zenekien

Joan den urtean bezala, Nafarroa osoko solaslagunak, mintzlagunak... biltzekoak direla larunbat honetan Lindurrenborda sagardotegian mintzapraktika egin bidenabarkoan bazkaltzera eta egunpasa egitera.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

sarobe[®]
gozotegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99
www.sarobe.net

IRU BIDE
Erretea · Asador

Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

KIROLA → MAIATZAREN 2AN

Mendi Itzuliak bi ibilbide izanen ditu aukeran

Irune eta Itsaso

Maiatzaren 2an izanen da Etxalarko II. Mendi itzulia. Bi ibilbide ezberdin izanen dira aurten aukeran; 30km-koa eta 26km-koa. Goizeko 07:30-08:30 bitartean izanen da irteera plazatik eta izen ematea goizeko 06:30-07:30 bitartean egin daiteke plazan bertan edo aitzinetik online www.mendizmendi.com web orrian. Hauek izanen dira ibilbideak: herriko plaza, Altxata, Infernuko Errota, Etxebertzeko Borda, Pareta Zahar, Azkueta eta plazan bukatu. Janari eta edari puntu hauek egonen dira: Herrian, Altxatan, Etxebertzeko Bordan, Pareta Zaharren, Larre Zabalen eta berriz ere herrian. Mendi itzuliko kamisetak egonen dira salgai egunean bertan plazan.

Aste Santua

Turismo bulegoa ortzegunetik astelehenera egon zen irekita eta

bisita gidatuak ere egin ziren. laz baino turista guttiago pasa da aurten turismo bulegotik, denetara 181 turista; batez ere Euskal Herrikoak, madrildarrak eta kataluniarrak. Usategiak eta Infernuko Errotari buruzko informazioa da gehien eskatu dutena, baina baita Zugarramurdi, Sara eta Larrunera igotzeko trenaren ingurukoa ere.

Gure Esku Dago

Apirilaren 17an Gure Esku Dago ekimenaren ibilbidearen aurkezpena eginen da Kultur Etxean 18:30ean, eta ondotik *Jostunak* dokumentala emanen da. lazko kontuak aurkezteaz gain, aurtengo pentsatu diren ekitaldiak eta mugimendu honek izanen duen garapena ere azalduko dute. Ostatuan eta plazako dendan, GEDko komikiak daude denentzat eskuragarri, bertan egindakoa- ren eta heldu denaren laburpena erakusten da.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Ardo txapelketa

Apirilaren 5ean Larraburuko museko ardo txapelketako sari banaketa egin zen. Txapelkunak Joxemari Olagarai eta Santiago Olasagasti izan ziren eta azpitxapelkunak Manuel Agirre eta Santiago Mitxeltoena. Arkupeak emandako sariak banatu ziren (ardo botila eta gasna).



ARGAZKIA: EDORTA ITURRIA

Kenpo Kai topaketa internazionala

Martxoaren 28 eta 29an, Beran Kenpo Kai topaketa internazionala ospatu zen. Euskal Herriko nahiz Espainia, Frantzia, Polonia, Errusia, Italia eta Japoniako jendea etorri zen, baita Kenpo modalitate desberdinetako 13 irakasle handi ere. Etxalartarrek ere parte hartu zuten larunbat arratsaldeko txapelketa ezberdinetan eta sarituak ere izan ziren. Gauean afaria egin zuten Etxalarko bentan. Topaketa honen aitzakian bi japoniar Etxalarren gelditu ziren eta herria aunitz gustatu zitzaizen.

FLASH

Mendi irteerak

Zanpingorri mendi taldearen eskutik, apirilaren 19an Larrunera eta apirilaren 26an Baigorriera ateraldiak antolatu dituzte. 08:00etan izanen da hitzordua plazan.

Elizatik oharra

Urte aunitzetan igande eta besta egunean, 11:30ean izan den meza, hemendik aitzinera eguerdiko 12:00etan izanen da.

Larraburua

Urteko batzar orokorra apirilaren 25ean izanen da Larraburuan arratsaldeko 6etan.


“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatzeko sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Aprilik 23
liburuaren egunean
710 eko DESKONTUA
liburuetan



zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com



ARANTZA

KULTURA → ARANTZA ROCK JAIALDIAK 20 URTE

Arantza Rock-eko argazkiak bildu nahi ditu Gazte Asanbladak

XX. urteurreneko ospakizuna abuztuaren 22an izanen da

Nerea ALTZURI

Dagoeneko bi hamarraldi eta Arantza Rock oraindik gazte. XX. edizioa modu berezian ospatuko dute abuztuaren 22an eta Gazte Asanblada antolaketan burubelarri ari da. Ilusioa eta gogoa ez dira falta! Euskal Herriko musikaren historian leku nabarmena du Arantza Rockek eta aunitzek oroimenean irudiak gordeta baldin baditugu ere, irudi horiek, ordenagailuan, paperean daudenak, bildu nahi ditu Gazte Asanbladak. Argazki bilketarako laguntza eskatu du eta norbaitek Arantza Rockeko argazkiak baldin baditu, arantzagazteasanblada@gmail.com era bidal ditzake.


HISTORIA EGINEZ...

Arantza Rocken ibilbidea 1995ean abiatu zen,

Aterpekoek lehen aldiz antolatu zutenean, Aterpeko aparkalekuan, orain alberge berria dagoen inguruan. Garai hartan, herriko musikaria den Iban Zugarramurdi Baldin Badako bateria-jotzailea zen eta lehenengo kontzertu horretan E.H. Sukarra, Su Ta Gar eta Baldin Bada taldeek jo zuten, musutruk. 1997ra arte kontzertu jendetsuak izan ziren leku berean eta ordurako sortua zen Gazte Asanbladak hartu zuen antolaketaren ardurua. Aunitzek buruan ditugu kontzertura hurbildutako ehunka zaletuen uholdeak. Harrera ikaragarria izaten zuten emandiek eta urterik arrakastatsuenetan 3.000 lagunetik goiti bildu ziren.

ATERPETIK FRONTOIRA, ETA FRONTOITIK PLAZARA

Ondotik, frontoira pasatu zen jaialdia eta 2005-era arte frontoian egin zen, sarrera kobratuz. 2005az geroztik plazan egiten dira kontzertuak, sarrerarik kobratu gabe.



DATUA

3.000

LAGUN

bildu izan ditu Arantza Rockek, bere urterik arrakastatsuenetan.

Izan ere, urtez urte, musika taldeak ordaintzeko aurrekontuari aitzin egiteko gero eta zailtasun gehiago izaten ziren eta gisa berean, kontzertuetara etortzeko ohitura aldatu zen, kontzertuek jende guttiago erakarriz.

Gazte Asanbladak, jaialdiaren izena mantenduz, antolaketaren egitura aldatzea erabaki zuen eta hasierako urteetan

Udaleko langileak

2015erako herriko garbitzaileak kontratatzeko bi deialdi egin ditu Udalak. Lehenbizikoan, Xuanteneko Luis Mari Anduezak gainditu zituen probak. Bertze garbitzaile bat behar zenez, azkeneko deialdiari erantzunez, eskatutako baldintzak betez eta probak gaindituz, Igantziko Idoia Urtxegi izan zen garbitzaile postua lortu zuena. Bien artean Herriko Etxea, eskola, medikuaren kontsulta, Baskula eta Pelle-Ttiki garbitzen dituzte. Bertzalde, Otsarrako Imanol Lukanbio herriko lanetan hasi da albinteari laguntzen. Irail akabaila arte ariko da. Lanpostuari zegozkion probak eginda, bera gelditu zen lehenbiziko postuan. Langile hauek kontratatzeko Nafarroako Gobernutik eta Europatik diru-laguntzak jasoko ditu Udalak.

rock taldeak nagusi izan baziren, azken urteotan rockaz gain, ska, trikitixa, regga eta bertzelako estiloak jorratzen dituzten taldeekin goza daiteke. Urtero zuzeneko musika emanaldiak egin dira bi urtez izan ezik. Euskal Herriko, tar-tean eskualdeko, eta atzerriko izen haundiko taldeek parte hartu dute Arantza Rocken.

Honen gibelean lan haundia bada: taldeak aukeratu eta beraiekin harremanetan jarri, dena ordaintzeko dirua lor-

tzeko rifak egin eta saldu (garai batean, metxeroak eta kamisetak ere bai), kartelak egin eta zabaldu, kontzertu eremua atondu, taldekideei afaria eman, dena ongi antolatu, txosna ireki, lanerako jendea bildu... Gazte Asanbladakoz gain, jende gehiagoren laguntza ere behar izaten da.

Hilabete batzuk baditugu, beraz, prestaketan laguntzeko eta seguru gaude oroitzapenez eta sorpresaz beteriko egun hunkigarria izanen dela aurtengoa.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Korrika Ttiki jendetsua

Haur, gazte, heldu, jubilatuz... Euripean baina aranztar aunitzek parte hartu zuen martxoaren 27an egindako Korrika Ttikian. Korrikaren lekukoa herrian barna ibili ondotik, denak frontoian bilduta, talde bakoitzak euskararen aldeko bere mezua irakurri zuen. Gazte Asanblada, Guraso Elkarte, Pelle-Ttiki Haur Eskola, eskolako lagunak, Zahar Txoko eta Ekaitza Elkarteak, hain zuten. Ondotik berendua egin zuten.

GIZARTEA → APIRILAREN 9AN DONEZTEBEN

Gimnasiaren besta ospatu du Arkupeak elkarteak

Donezteben aritu dira 44 kirolari

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak urtero antolatzen duen Gimnasia Bestak 44 ki-

rolari bildu zituen apirilaren 9an Doneztebeko kiroldegian. Denek, yoga ariketak egin zituzten Patxi Chocarro irakaslearekin batera. Denera, elkarteko 128 bazkide bildu ziren Donezteben.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Doneztebeko kiroldegian yoga ariketak egin zituzten Patxi Chocarro irakaslearekin.

2004. urtera arte Gimnasia Eguna Iruñeko Anaitasunan egiten zuten, baina handik Berako Toki-Ona kiroldegira etorri ziren, zortzi

urtez. Halere, joan den urtean bezala, aurten ere Donezteben egin

dute beraien sasoi onaren eta bizipozaren erakustaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bera eta Lesakako jubilotekakoak Udaberriko bestan

Udaberriko Besta ospatu zuten martxoaren 27an Berako eta Lesakako jubilotekako erabiltzaileek, Berako Lagun Haundiak elkarteak. Elkar ezagutzeko egun-pasaz gain, eskulan tailerretan egindako lanak erakutsi zituzten, giro ederrean.

PARTE-HARTZAILEAK

DONEZTEBE (7)

M^a Luisa Lazkano Goñi
M^a Jesus Agirre Ubiria
Asuncion Telletxea Sarratea
Itziar Juanikorena Gorosterrazu
Mercedes Altzuri Bertiz
Angela Ramos Gil
M^a Carmen Irigoien Lertxundi

ELIZONDO (6)

Rosa Mendiburu Gillenea
Juanita Dendarrieta Larraia
Asunción Jaurena Aintzinena
Marcelina Ormart Etxebertz
M^a Jesus Etxandi Aristizabal
Trinidad C. Nemours Ezponda

IRURITA (5)

M^a Milagros Gamio Goñi
Julia Irigoien
Javier Vicente
M^a Josefa Arrijuria Etxenike
Milagros Zelaiaeta Irungarai

URDAZUBI (3)

Francisco Menta Irigoien
Anita Menta
Fco. Javier Irigoien Dessein

LEITZA (20)

Serafina Ezkurra Otxandorena
Teresa Gomez Telletxea
Juanita Escudero Perurena
Tere Perurena Apeztekoa
M^a Teresa Elizalde Mariezkur.
M^a Luisa Elizalde Mariezkur.
Sagrario Eugi Baraibar
Tere Arraigo Barberia
Manuela Diosdado Perez
Maritxu Alduntzin Gogortza
M^a Milagros Olan Sestorain
M^a Carmen Petrirena Arretxea
Francisca Agirre Azpiroz
Isabel Huarte Huarte
Lourdes Erbiti Caballero
Inaxi Lujanbio Zubiri
Sebastiana Ezkurra Mutuberria
M^a Luisa Barno Erbiti
Pilar Urkiola Zestau
Paquita Urkiola Zestau

NARBARTE (1)

Olga Diaz de Cerio Hidalgo

SUNBILLA (1)

Susana J. Di Genaro Garcia

ITUREN (1)

Clotilde Iñigo Ariztegi

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

SUNBILLA

GIZARTEA → HAINBAT EKITALDI EGIN DIRA HERRIAN

Pintxoaren Astean Itturburukoa izan da garaile

Jendetza ibili da Aste Santuan

Maidar PETRIRENA

Aste Santuan herrian eskualdean bezala jendetza ibili da. Eguraldiak aunitz lagundu duenez landetxeetan eta kanpinean jendea ibili da. Horretaz gain aipatzekoa da III. Pintxo Astea ere ospatu dela eta guztiz arrakastatsua izan da. Guztira 1.357 pintxo saldu dituzte 4 ostatueta eta irabazlea Itturburu ostatuko barazki eta magraz betetako txanpinoa izan da. Bakoitzak 2 pintxo ziztuzten dastatzeko. Itturburun pintxo irabazleaz gain kabraroka pasta zuten. Ariztigain kanpine-

an berriz xingarra eta gazta betetako alkatxofa brotxeta eta patata eta kuiatxo liburuxka foie eta otarrainxkarekin. Bustitz ostatuan Ezti-ozpin, gazta, urdiazpiko eta foie ogi xigortuan eta Rejo-patata krema, eta patata-gozo txipekin. Azkenik, Fonda ostatuan txipiroiz beteriko hojaldrea eta odolki eta txorizo batean parte hartzen zen. Magra eta bi botil ardo irabazi dituen herritarra izan da: Nagore Mardariaga Iriarte

Apirilaren 2an Ariztigain Kanpinean Txamukos mariatxiak aditze ko eta dantatzeko aukera izan zen. Ze nolako tarte polita eskaini ziguten arratsalde zein



ARGAZKIA:
JAIONE OTXANDORENA



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Argazkietan ageri denez, parte hartzeko aukera zabala izan da Aste Santuan.

arrats partean. Zorionak hemendik antolatzaile eta musikariei.

Ortizal Santuan prozesioa egin zen. Zubi berritik, Kale Nagusian eta zubi zaharran barrena elizara bitarte.

Igandean, Ariztigain kanpinean hauren txantada izan zen. Arratsaldeko 4:30etik aitzinera arratsalde eder eta polita pasatzeko aukera izan zuten. Ginkana, globoflexia, antzerkia, txo-

kolatada eta kantuan ere aritu ziren. Musika talde bat sortu zuten hainbat musikari elkartuta eta hurrek haur kanta jaialdian kantatutako abestiak kantatzeko aukera izan zuten.



Pertsonaia
Arkaitz VICENTE

Hamargarren aldiz saritua Ordizian

Ordizian Artzain eguna ospatu zuten apirilaren 8an eta horrekin batera Idiazabal Izendapenaren Kalitate saria ere banatu zuten. Oraingoan ere eta hamargarren urtez Epe txenekobordako Lizun gaztandegikoak izan dira erregularitasunaren saria lortu dutenak. Arkaitz Vicentek hartu zuen saria, Luis Vicente eta Rosa Urkijo gurasoekin batera kudeatzen baitu gaztandegia. Zorionak familia eta segi horretan.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Aiako Harrietara

Ulibeltzak mendi taldeak ere eguraldi ona ongi aprobetxatu zuen irteera eder bat egiteko. Hain zuzen ere apirilaren 6an Aiako peñetara joan ziren. A ze nolako bistak ikusteko aukera izan zuten!

GIZARTEA → SUNBILLAN BILDU ZIREN MARTXOAREN 31N

Herri eskolen V. Joku topaketan ELArenгатik konfietekin busti dira

Aurten ere Sunbilla, Ituren, Narbarte, Legasa, Saldias eta Beintza-Labaiengo eskolak berain urteroko festa ospatu dute

TTIPI-TTAPA

Malerrekako herri eskolen V Joku topaketa edizioa ospatu zen martxoaren 31n Sunbillan.

Sei herri eskoletako 215 ikasle eta 30 irakasle frontoian elkartu ziren. Urtero bezala topaketako bertsoarekin hasiera eman zitzaion jaialdiari. Ondoren, adinka taldekatu eta goiz osoan hiru tailer desberdin egin zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sei herri eskoletako 215 ikasle eta 30 irakasle bildu ziren Sunbillan.

Haur Hezkuntzakoak herri kirol jolasekin hasi ziren. Lehen Hezkuntzakoak, berriz, talde bat plastika tailerrean orri-markak egiten eta besteak oso arra-

kastatsua suertatu zen narrasti eta anfibio tailerrean animala bitxi, bel-durgarri... batzuk ikusi, ukitu eta beraietaz gauza aunitz ikasteko aukera izan zuten.

Gosaldu ondoren, txikienak plastika eta narrasti tailerrean gozatzun zuten bitartean, handienak herri kirol saio dibertigarri bat egin zuten.

Bazkaldu ondoren, frontoian Eriz Magoaren eskutik magia saio polita eta alaia izan zen.

Eguna akitzeko, Baztango eskola ttikitatik iritsitako ELAren aldeko bustialdiaren gonbitea onartu zen. Manifestu bat irakurriz hasi zen ekitaldia, ELA gaitasuna sufritzen dutenei beraien eguneroko borrokarako babesa emateko. Bustialdiaren aitzinetik kutxa bat pasatu zen nahi zuten irakasle eta gurasoek diruz lagun zezaten. Eta azkenean bustialdia konfietekin egin zen.

Malerrekako herri eskoletako ordezkariak eskerrak eman dizkiete Sunbillako Udalarari eta berexiki udaletxeko langile den Juanjori, bere borondate onarengatik.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2015 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

DONEZTEBE

KULTURA → MARTXOAREN 27AN

Musika erlijiosoko saio bikaina eman zuen Mendi Abesbatzak

Hilabete dotorea borobilduz

Marga ERDOZAIN

Hamar eliz-abestiz osatutako kontzertu ederra eskaini zuen Mendi abesbatzak martxoaren 27an elizan. Ion Irazoki zuzendariak bideratuta, aldaban zortzi abesti kantatu zituzten: Sicut Cervus, Ave Verum; Bi Ave Maria, Pater Noster, Aita Gurea eta bi O Salutaris Hosta izeneko piezak. Kontzertuaren bigarren zatian, korutik, beste bi abesti eskaini zituzten abesbatzakoek: Kyrie eta Gloria. Emanaldi honetan abesbatzako kide guztiak zoriondu behar dira baina aipatu behar da bakar-lariak honako hauek izan zirela: Bixi Amezttoy, Mañoli Apeztegia, Alicia Telletxea eta Arantxa Ciganda (sopranoak), M^a Sol Arraztoa (goiko ahotsa), Xalbador Arriola (tenorea) eta Bernardo San Miguel (ba-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Errekako judoek lau domina Nafarroako txapelketatik

Errekako judoek lau domina lortu dituzte alebin mailako Nafarroako Txapelketan. Mutikoetan, 34 kiloz beheitikoan kategorian Narbarteko Jokin Oteiza O-llok lehendabiziko postua lortu du, 38 kiloz beheitikoetan Doneztebeko Eñaut Setoain Gartxitorena hirugarren gelditu da eta 52 kiloz beheitiko mailan, Doneztebeko Aritz Zulaika Irigoienek bigarren postua eskuratu du. Nesketan, berriz, Saioa Atxalandabaso Iribarren doneztebarrak bigarren postua eskuratu du 34 kiloz beheitiko kategorian.

ritonoa). Rocio Artazcoz organu-joleak eta Ruth Etxebeste piano-joleak ere lagundu zuten.

Ekitaldi honekin borobildu nahi izan zuen Mendi Abesbatzak martxoko hilabetea,

bertze bi hitzordu garrantzitsu izan baitituzte: martxoaren 14an Goizuetako Umore Onarekin batera eskainitako kontzertua (Doneztebeko elizan) eta martxoaren 18an Donostia-

ko Udaleko txistu taldearekin eta Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorio profesionaleko txistu ikasleekin batera eskainitako kontzertua (Nafarroako Musikaren Hirian).

FLASH

Nafarroako Akordeoilarien Topaketa

Nafarroako Soinalarien Topaketaren lekuko Doneztebek hartuko du eta igande honetan, apirilak 19, jaialdi hau antolatuko du. 11:30ean soinalariek kalejira egingen dute herriko kaleetan, taldeka sakabanatuko dira eta gero denak elkarrekin ariko dira talde argazkia ateratzeko. 14:00etan eguna borobiltzeko Santamaria jatetxean bazkaria izanen dute.

Zine denboraldiaren bukaera

Apirilaren 26an Erreka Guraso Elkarteak aurtengo azken filma pantailaratuko du, *Horton* (euskaraz). Urriaren bigarren hamabostaldian hasita, sei hilabetez, hamabortzero pelikula bat ikusteko aukera izan da zineman. Aipatu behar da abendutik hona pelikula bat bertzerik ez dela eskaini, bigarren emanaldia bertan behera gelditu zelako, hainbat gaztetxoekin izandako gorabeherak direla eta. Ea heldu den urterako berreskura dai-tekeen.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BORDALARRIA

Gure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

GIZARTEA → HERRI BAZKARIA ANTOLATU DUTE BURRUNBA GAZTE TALDEAREKIN BATERA

Ehuntze Eguna ospatuko dute Donezteben apirilaren 25ean

Oihala josi eta kate luze bat egin nahi dute karriz karriz

Marga ERDOZAIN

Malerrekako Gure Esku Dago batzordeak apirilaren 25ean *Ehuntze Eguna* ospatuko du Donezteben, ekitaldiz betetako egitarauarekin.

10:30ean Bearzana plazan herri-kirolak izanen dira. Malerrekako 7 edo 8 talde lehiatuko dira eta talde bakoitzean 9-10 lagun izanen dira. 11k aldera Ehuntze ekitaldia hasiko da. Ekitaldi horren helburua da koloretako oihalak apaintzea, margotzea, txukuntzea eta ondotik ongi jostea. Oihalak behin josita, kate luze bat



lazko Gure Esku Dago ekimenean bezalaxe, jendearen parte hartzea bultzatu nahi da.

eginen da frontoian eta gero, musikak lagunduta, herriko karriketetan. Ondotik, herri bazkaria antolatu dute Burrunba gazte taldearekin batera. Bazkaldu ondoren kantu zaharrak abestuko dituzte. Arratsaldean, berriz, umeendako puzgarriak eta jokoak

izanen dira. Eguna bo-robiltzeko musika izanen da.

Ehuntze egunak itxiko du otsailean abiatu zen dinamika: jostunak dokumentala otsailean Malerrekako hainbat herritan ikusteko aukera izan baita eta martxoan zehar burutu di-

ren mendi martxak (Mendaur eta Leurtzako zirkua).

EKAINAREN 21EKO EKITALDIEN AURREKARI

Ehuntze egun honek ekainaren 21ean Iruñean burutuko den ekitaldia prestatzeko ere balio du: Egundorretan, hautestontzi erraldoia eraikiko da eta denon artean jositako eta ehundutako oihalez estaliko da. Ekaineko ekitaldi hau herritar desberdinen borondatearen adierazle izatea nahi da. Aniztasun hori hautestontzi erraldoi hori estaliko duten oihal anitz eta koroletsuen bidez irudikatuko da. Helburua azken finean argia baita: *gaurko hautestontziak, biharko erabakia* ahalbidetzea.

FLASH

Sare sozialetan hitzaldia

Erreka eta Mendaur guraso elkarteek antolatutako hitzaldia apirilaren 22an, ortzegunean 10:00etan DBHko liburutegian eskainiko du Foruzaingoko Delitu Informatikoen Atalak. Hitzaldi honen helburua da gurasoei sare-sozialen inguruko kezak, galderak, erabilera okerrak, aholkuak... bideratzea eta seme-alabek gaizki erabiltzean izaten ahal diren balizko delituen inguruko hausnarketa eta hori dagokion protokoloaren informazioa zabaltzea. Aipatu behar da gai hau ikasgela ere landu dela, gaztetxoaren artean interesa eta informazio falta antzeman delako. Guraso elkarteetatik, zuzendaritza taldearekin elkarlanean beharrezkotzat jo da gai hau familietan ere lantzea.

Musikoterapia saioa

Afan eta Malerrekako Osasun Etxeak antolatutako musikoterapia saioa apirilaren 16an (ortzeguna) arratsaldeko 5etatik 7etara burutuko da Mankomunitateko egoitzan. Interesatuak 948410299 edo 948275252 telefonora deitu behar dute.

Literatur solasaldiak

Afan eta Malerrekako Osasun Etxeak antolatutako musikoterapia saio hau apirilaren 16an (ortzeguna) arratsaldeko 5etatik 7etara burutuko da Mankomunitateko egoitzan. Interesatuak 948410299 edo 948275252 telefonora deitu behar dute.



Mugikorra: 650 53 20 73 **arotxa.taller@gmail.com**
Telefonoa: 948 58 14 18 **www.arotxataller.com**

MOSKITERAK

- Moskitera batekin euli eta moskitoetaz babestu
- Eguzkiaz babestu toldo batekin

TOLDOAK ETA ESTOREAK

ETXEA - MERKATARITZA - OSTALARITZA



ITUREN

GIZARTEA → LANDETXEAK ETA ATERPEAK BETEAK EGON DIRA

Jende ugari ibili da herri xokoetan Aste Santuan

Normaltasunera bueltan, eskolako ikasleak azken hiruhilekoan sartuak dira

Arkaitz MINDEGIA

Pasa berri diren opor tiki hauetan jende ugari ibili da herrian, batzuk egonaldi luzeak eginez eta beste batzuek egun pasa... landetxeak eta Abarun aterpetxea beretik egon dira turistez, Euskal Herriatik, Kataluniatik etorritakoak...

Jadanik normaltasunera itzuliak gara, jendea lanean eta nola ez eskoletara joaten diren ikasleak beraien azken hiruhilekoan sartu dira.

Artisau eta Lanbide Azoka

Hilabete honetako azoka apirilaren 12an burutu zen. Beti bezala, Iturengo plaza artisautea eta eskulangile postuz bete zen, bitxi, jantzi eta janariak... Horren arrimoan jende ugari bildu zen.

Hurrengo hitzordua maiatzaren 10ean izanen da.

Abarun aterpetxean Udalekuak prest

Abarun Aterpetxekoek lehendik ere antolatutako udalekuak, urteak baitaramatzate aisialdiko heziketaren munduan lanean, ikasten eta goxatzen eta horren emaitza da Aur-

titzen egin duten proiektua. Ez dira udako udalekuetan bakarrik lanean ibiltzen, urtean zehar Euskal Herriko ikasleak ateraldietan egun politak pasatu eta pasako dituzte. Ikasturteak irauten duen bitartean, ikasle eta irakasleak Abarun aterpetxetik pasatzen ari dira.

Maiatzaren 16tik 29ra dago irekia eskaerak eta matrikula egiteko epea. Ekainaren 21ean hasi eta abuztuaren 28ra bitarte, batzuetan hamar egun eta besteetan guttigo, adin eta maila ezberdinak antolatutako udalekuak. *Sormen bidaia* izenburupean, ume edo gaztetxoek egun ahaz-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehenengo jaunartzea

Apirilaren 5an, normalean baino lehenxeago, lehenengo jaunartzea egin zuten Aurtizko Xabier Mariezkurrena eta Izaro Arretxea lehengusuek. Egundak ahazte zina izan zen beraiantzako, opari eta ospakizun ederrean igaro zuten.

tezinak pasako dituzte.

Informazio gehiago eta Sormen bidaiaren

inguruko xehetasunak

948 450067 telefonoan edo www.abarun.com.

GIZARTEA

GIZARTEA → BI PERTSONENTZAKO

Cancunera bidaia zotz egingen du DenokBat Federazioak

Apirilaren 30a arte elkarteko komertzio eta zerbitzuetan egiten diren erosketen truke

TTIPI-TTAPA

Cancunera bidai baten zozketa antolatutako bere bezeroen artean DenokBat Federazioak (Berako Larun-Haizpe, Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, Bertan Baztan



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako komertzioak elkartuak daude DenokBat federazioan.

eta Doneztebarrak Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak osatua).

Apirilaren 13tik 30era, DenokBat-eko bazkide den saltoki bakoitzean guttienez 10 euroko erosketa bat egi-

ten duten bezeroek parte hartu dezakete zozketan.

Zehazki, Cancunera (Mexiko) bi pertsonentzako bidaia bat zozketatuko da. Zozketa maiatzaren 4an egingen

da, eguerdiko 14:30ean Malerrekako Mankomunitateko egoitzan, Donezteben.

Zozketa publikoari irekia izanen da, nahi duenak agertu nahi izanez gero.

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 30EAN ELGORRIAGAN

Malerrekako Egunerako lanak prestatzen hasiak dira herritarrak

Herri bazkariko paella egin beharko dute

Fermin ETXEKOLONEA

Malerrekako Eguna hurbiltzen ari da. Maiatzaren 30ean izanen da Elgorriagan eta lanen banaketak egin dituzte. Zubietarrek bazkarirako paella egin beharko dute, bazkalondoan Malerrekako kantuz modukoren bat izanen da eta horretarako soinua eraman beharko da, trikitilari eta panderojoleen bat, Muxikoak dantzatzeko dantzariak eta joaldunak ere aritzekoak dira. Egun horretarako urtez urte lantzen den egurrean Elgorriagako armarrira irudikatzen ari da Miguel Arregi herritarra.

Bake epailea

Bake epailearen kargua hutsik dago. Orain

artean Sebastian Indakoetxea aritu da, baina orain ez da inor, ez bake epaile titularra ez ordezkoa izateko. Norbait baldin balego borondatez aritu nahi lukeena idazkaritzara joan beharko luke. Beste gainerakoan, udal bazarrak aukeratuko du.

Itturrik lan bikaina egin du Nafarroako txapelketan

Ander Fuentes *Itturri* izan da herriko ordezkaria Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta lan dotorea egin du, hasi eta buka. Lizarrako lehen kanporaketan onena izan zen eta Lesakako finalurrekoan, puntuen arabera lortu zuen Elizondoko finaleko sailkatzea. Han ere ale politikak utzi zituen eta seigarren izan zen sailkapenean. Beraz, zorionak egindako lanarengatik.



ARGAZKIA: IZASKUN

Sagardotegira ateraldia

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, Aste Santu inguruan irteera egin dute sagardotegira. Hamabi lagun joan ziren larunbatean Astigarragako Petritegira, giro ederrean. Gustora ibili ziren, argazkiak erakusten duenez.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Itturri kantari Elizondon, finaleko bertso lagunak adi dituela

APC
ILUMINACION
...zure LED denda

- LED bonbilla eta lanparetan aukera izugarria
- Kontsumoan %80 arte aurreztu
- Gustura geldituko zara, etorri eta ikusi
- Partikularrei zein profesionaleri zuzendutako salmenta, prezio hoberekin

Kale Nagusia 7, DONEZTEBE | 615 008 666
www.apcsoluciones.es

Komunikazio elementuak garatzen ditugu.

DISEINU GRAFIKOA

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelek, poltsak, txepak...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.eus www.kulturkari.com

DONAMARIA

KIROLA → APIRILAREN 3AN

Sasoitsu hasi du denboraldi berria Ibargoiara Mendi Taldeak

Hilabeteko hirugarren larunbatetan egingen dituzte ateraldiak

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 3an hasiera eman zion Ibargoiara Mendi Taldeak aurtengo sasoiari. Eguraldia lagun, 14 lagunek

urtero bezala Donamariako mendietan barrena 24 kilometroko ibilaldia osatu zuten. Iaz bezala, hilabeteko hirugarren larunbatetan egingo dituzte mendi irteerak. Eta maiatzaren 2an Etxalarko mendi itzulia ere egingo dute.

Batukada ikastaroa

Apirilaren 15ean hasita, batukada ikastaro



UTZITAKO ARGAZKIA

Ibargoiara taldekoak, denboraldiko lehen mendi irteeran.

ttiki bat egingen da Donamarian. Bortz astetan, asteazkeneo 18:00etatik 20:00etara Oskar Estangak eman go du. Instrumenturik ez da behar, irakasleak ekarriko ditu. Guztira 24 lagunendako tokia badago. Taldetxoa osatzen ari da baina orain-

dik izena emateko aukera badago.

Udal talde berria prestatzen

Aurten hauteskundeak direla eta, herrian udal talde berria osatzeko ahaleginetan dabilta. Dagoeneko bi batzar ire-

ki egin dira. Lehendabizikoan ia ez zen jenderik agertu. Bigarrena apirilaren 4an egin zen eta badirudi bigarren honetan parte hartze handixeagoa izan zela. Bileren horretan udal zerrenda berrirako izen batzuk eman omen zituzten.

URROZ

GIZARTEA → 400 IBILGAILU ASTE SANTUAN

Leurtzako urtegieta denboraldi berria

3 euro ordaindu beharko du ibilgailu bakoitzak

Joseba URROTZ

Hasi da aurten ere Aste Santuarekin batera, Leurtzako urtegieta bisitariak hartzeko garaia. Gainera aurten, eguraldi ona izanik, jende mordoaxka etorri da,

400 ibilgailu zenbatu arte.

Beti bezala, bi zaindari ere kontratatu dira, bat egunero arituko dena urria arte, eta bertze bat asteburutako lana indartzeko. Aurten lanaldi luzea Urrozko langileari egokitu zaio.

Jakina da Nafarroako Gobernuak laguntzak murriztu zituela, eta errepidearen zati ttiki bat konpontzeko eman bada ere, ez da behar guziaz asetzeko aski, hor-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sagardotegira bixita

Aitzineko alean sartzeko astirik izan gabe, eta hilabete bat pasatu bada ere, aipatuko dugu martxoaren 14an herriko gazteak Astigarragako Etxeberria sagardotegira joan zirela, urtero legez, autobusa eta guzi.

taz, mantenimendurako, bisitariari kobratuko zaie, iaz hasi bezala. Gainera aurten, euro bat igo da ordainsaria, alegia, 3 euro ordaindu beharko du Leurtzara etortzen den ibilgailu bakoitzak.

Hauteskundeak prestatzeko batzarra

Apirilaren 4rako batzar deia egin zen, udal hauteskunderi begira zerbaite antolatzeko. Hala ere, ez zuen nonbait

interes handirik bixtu, gaur egungo udalkideez gain, zazpi lagun bakarrik agertu baitziren.

Bertze urtetan bezala, herri bozketa bat egingen da, zerrenda osatuko duten kideak aukeratzeko.

EZKURRA

HISTORIA → AGIRI ZAHARREI BEGIRA

Udaletxe, herritar eta elizaren arteko harremanaz

Fernando ETXEBERRIA

Gaur egunean eztabaida sortzen du elizako ordezkariak beraien joera politikoak agertzeak. Herriarenak diren ondasunak elizak bere izenean jartzea ere ez da begi onez ikusten, baina garai batean ezberdina zen udalaren eta elizako arduradunen arteko harremana.

Udal artxibategian, Martin Sanz de Ezkurra *Ezkurrako Jauna* eta elizaren arteko harremana azaltzen duten agiriak daude. Familia honen herriaren jabea zela uste zuen eta apezaz izendatu, jarleku berezia okupatu, bertan familiako kideak bakarrik lurperatu eta hamarrenak kobratzen zituzten. Gaur egun, elizaren ezkerreko aldean bi armarri ageri dira. 1721ean erdiko erretaula zaharberitu zen, bizilagunen laguntzarekin. 1727an baseliza berria nola eraiki zen agertzen duten agiriak ere oso interesgarriak dira, herriak gastuak (lurra, materiala eta erakuntza) bere gain hartuzala eskatu baitzuen apezpikutzak eta halaxe gertatu zen.

1889. urtetik hona udaletxeko bilkuren historia laburbiltzen duten 18 liburu daude. Akta guztietan ageri dira erreferentziak udalaren eta elizaren arteko harre-

manaz: obrak, mantentimendu gastuak, langileak (apeza, organista, sakristaua...). Baseliza eta elizaren arteko bidearen gastuak bere gain hartu zituen udalak, dorrea, teilatua, sakristia, apezaren etxea, sarrera eta zola moldatzea, ura ekartzea eta bertze hainbat lan... 1937an eskolara joan zen udalbatza, Errepublikari garaian kendutako gurutzak eta irudi sakratuak jartzera. Gerra bukatutakoan meza antolatu zen, "por haber ganado la guerra contra el comunismo en defensa de Dios y la patria". Herritar guzietan eskaini zitzaizkien ondorekin, eta dantza izan zen txistulari eta dantboril-jolearekin.

1961ean, sakristaurean 25.000 pezeta eta apezari 15.000 pezeta ordaintzea onartu zuen udalak.

18 akta-liburuetan, alkate eta apezaren arteko liskar bakarra ageri da. 1931n gertatu zen. Udala batzarrean bildua zegoela apezaz sartu zen, igande eta festa egunetan ostatueta erronda egitea eta gaueko 10etatik aurrera itxiaraztea eskatuz, baita eguraldi txarraren aitzakian bertan dantza egitea debekatuz eta juramentuak eta gehiegizko edana jazarriz. Alkateak haserre erantzun zion



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Eliza eta udaletxea. Bien arteko harremana ona izan da orokorrean historian zehar.

apezari eliztarrekiko lanak egin zitzaizkion eta arduradun zibilak bakean utzi zitzaizkion, ez zelako bere ardura inolako neurririk eskatzea.

Bisitari ugari Aste Santuan

F. ETXEBERRIA

Aste Santu bikaina izan da landetxe, aterpe eta ostatueta. Madril, Bartzelona, Bizkaia, Zaragoza, Kantabria eta Estoniako bisitariak ere izan dira.

BEINTZA-LABAIEN



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Gaztain ximal eskean ibili dira Ostegun Santuan Labaienen

Ez dakigu noizkoa den ohitura hau, baina urtez urte mantentzen da ilusioz Beintzako haur eta gaztetxoan artean. Ostegun santuan etxe etxe jasotzen dituzte hainbat goxoki. Garai batean, abestiak esaten duen bezala, gaztainak biltzen ziren. "Gaztain ximal ximalak andriak elizera gizonak tabenera haurrek haurretera apezak txokoltia hartzera!".



GOIZUETA

ARANO

KIROLA → MAIATZAREN 26AN

Goizutrailen bigarren edizioak bi ibilbide izanen ditu aukeran

Izen emateko epea zabalik dago

TTIPI-TTAPA

2015. urtean bi ibilbide izanen ditu Goizutrailen bigarren edizioak maiatzaren 26an.

Herriko plazan (154 m.) hasiko dira bi ibilbideak, Aitasemegi auzora igoko dira korrikalari guztiak xenda estu batetik. 4 kilometrotan xenda eta pistetatik berrera 680 metrotara dagoen Eneko Elorriko bizkarrera igoko dira, eta hemendik herrira jaitziko dira Espideko sorotik pasatuz.

10 kilometroko ibilbide motza egin behar dutenek herrian bukatuko dituzte lanak.

25 kilometroko ibilbide luzea aukeratzeko dutenek, ordea, herritik Mandoegiko gailurrera igo beharko dute, 1.045m. Ondoren Mandoegiko gailurretik jarraituko du ibilbideak eta bukatzeko berriz ere herriko plazara jaitziko da. Desnibela 1636 metrokoa da eta ibilbide guztia mendiko xenda pista eta larrean zehar izango da.

Izen ematea zabalik dago www.herrikrossa.com webgunean.



UTZITAKO ARGAZKIA

10 eta 25 kilometroko ibilbideak proposatu dituzte aurten Goizutrailerako.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Korrika Txikia

Korrika 19 ez da herritik pasa aurten, baina euskararen alde korrika egiteko aukera izan zuten goizuetarrek ere. Herri mailako Korrika Txikia egin zuten martxoaren 28an, hau da, Korrika Bilbora, bere helmugara iritsi baino egun bat lehenago. Adin ezberdinetako herritar ugarik egin zuen bat.

GIZARTEA

Maixus eta Joxe Ramonek irabazi dute Kontsejuko mus txapelketa

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Mus Txapelketa jokatu da Aranoko Kontseju tabernan eta Maixus eta Joxe Ramon izan dira irabazleak. Martxoko azken ostiralean jokatu zen finala. Aurten sei bikote aritu dira lehian. Finalean, giro bikaina izan zen, Ostiral Santua suertatu zelako. Txapelketa osoan ere oso giro polita izan dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Izan ere, Kontsejuko mus txapelketa urte osoko txapelketa izaten da, martxotik martxora, eta aurten goa zazpigarren edizioa izan da. Hilabete-ko azken ostiralean jokatu dituzte partidak. Funtzionamenduari dagokionez, hilabete-ko partidaren ondotik, puntu banaketa egiten dute. Inskripzioaren %70a ere egunean banatzen da, eta botea akumulatzen joaten dira. Txapelketa bukatzean, botea banatzen dute parte hartu duten bikote guztien artean. Irabazleak izaten du zatirik haundiena, eta proportzioan banatzen diete gainerako guztiei, azkenekora iritsi arte.



DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
ΔOVARIVM

Carlos Blasco de Imaz Plaza DONOSTIA
Tel +34 943 44 00 99



GIZARTEA → IZASKUN ALTZURI DA ZUZENDARIA

Euskaraz Blai Udalekuak Arantzan eta Labaienen

Matrikulatzeko epea maiatzaren 8ra arte zabalik dago

TTIPI-TTAPA

Euskaraz Blai 2015 Udalekuak kanpainaren aurkezpena egin zuten apirilaren 9an Baztan-Bidasoa Turismoa/Hiruk-Bat elkartearen egoitzan (Bertiz Landa Turismo Zentroan). Proiektuak 15. edizioa beteko du eta azkeneko 4 urteetan, Nafarroako Gobernaren laguntzarik gabe, Arantzako Ater-

pek eta Beintzako Or-bela aterpetxeek antolatzen dute bere alde-tik.

Mikel Albisuk, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren izenean, bere bazkideen proiektuak ezagutzera emateko konpromisoa azaldu zuen, egitasmo hau-ek Baztan-Bidasoa Eus-kal Herriko gazte eta fa-milien artean ezaguta-razten laguntzen dute-lako, eta turismorako bultzada handia suposatzen dutelako. «Le-hen Bertiz Partzuergo-tik egiten zen moduan, orain Baztan-Bidasoa Turismotik eginen du-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Mikel Albisu, Xabier Zugarramurdi eta Izaskun Altzuri, udalekuen aurkezpenean.

gu», azaldu zuen Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoko lehendakariak.

Xabier Zugarramurdik, Arantzako Aterpeko arduradunak, proiektuaren ezaugarri nagusiak azaldu ditu: udan zehar, astebeteko 10 txanda eskaintzen dira, denetara 800 plaza, bi aterpetxeetan banaturik. Helburu nagusia gaztetxoaren artean euskararen erabilpena bultzatzea da, «gazte askok euskara eskolarekin identifikatzen dutelako, ez egunerokoan komunikatzeko hizkun-

tza». Horretarako jolasak, kobazuloko bisita, bainu freskagarria bezelako naturajarduerak... aisialdirako egitarau osatua prestatu dute, igandetik larunbatera garatzen dena. «Nekazaritza bizimoduari ere garrantzia eman diogu, egun batean baserri batean bisita egin eta gero hurrek bere otordua prestatzen dute».

Izaskun Altzuri sunbildarrak, udalekuetako zuzendariak, aurten-ko berrikuntza azpimarratu du: txandak egite-rakoan hezkuntza ere-

dua ez da irizpide nagusia izanen (A, B edo D), gazteak euskararekin duen harremana baikik. Hala, ez da A eredu hutsezko txandarik antolatuko. Bertze berrikuntza matrikulazioa internetez egiteko aukera da, www.euskarazblaiudalekuak.com web guneraren bidez. Bertan informazio osatua aurkituko da.

Matrikulatzeko epea zabalik dago maiatzaren 8a bitartean. Informazio gehiago (09:30etik 13:30era): 622 728 984 telefonoa.

BERRIZ -

ENPRESA TOLOSAN

hartu erreleboa

Pertsona ekintzailea zara eta Tolosan martxan dagoen negozio bat hartu nahi duzu?

Tolosako merkataritza eta ostalaritzaren jarraipena bermatzeko, Tolosako Udalak laguntza ekonomikoak emango ditu: 6 hilabete arteko lan-kontratazioa ordaintzeko, bideragarritasun plana gauzatea, lokala alokatu/erosteko eta 10.000€ arte moldaketetarako.

Informazio gehiago eta parte hartzeko:
merkataritza@tolosa.eus | 943697454 | www.berrizenpresa.com

TOLOSAKO UDALA

LEITZA

KIROLA → AURRERA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTA

Leitzako XXXVII. Herri Krosa
apirilaren 25ean egingen da

Izen-ematea egunean bertan egin liteke edo aldez aurretik kirolprobak.com orrialdean

JM BARRIOLA

Aurrera Kirol Elkar-teak antolatzen duen eta aurten hogeita hamazazpigarren edizioa beteko duen herri krosa apirilaren 25ean jokatu-ko da, larunbat arratsaldean 16:30etik aurrera. Herriko erdigunetik izanen da irteera eta helmuga plazan. Kategoria desberdinetan banatuta, hauek dira ba-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

160 korrikalarik hartu zuten parte iazko krosean.

koitzak osatu beharko dituen distantziak: Benjaminiek (800 metro), alebinek eta infantilek (2,5

km), kadete, junior eta emakumezko helduek (5 km) eta gizonezko helduek (10 km).

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke edo aurretik www.kirolprobak.com orrialdean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euriteen kalteak konpontzen ari dira

Otsaileko eurite handien ondorioz, kalte ugari izan ziren herrian eta hauek kudeatzen ari da Udala. Eraso- te auzoan baserrietako bideetan lur erortzak izan ziren eta bertan egin dituzte lehenbiziko lanak. Iru- dian ikus liteke, Errezuma baserri parean larrialdi prozeduraz eraiki duten eskoilera. Tutenea parean egin beharreko lanen kudeaketa ere aurrera doa, premi- azko prozeduraz kasu honetan. Eta horretaz gain, apirilaren 7an bildu zen alkatea kontseilariarekin, Plazaola natur-bidean eta Astibia ondoan izanda- ko kalteak lehenbailehen konpontzeko eskatzeko.

BAKARLARI ETA TALDEKAKO SAILETAN

Leire Retegi bigarren Hernaniko
Txistulari Gazteen lehiaketan

Martxoaren 28 eta 29an Hernanin jokatu zen txapelketan bigarren postuak eskuratu zituen le- itzarrak, bakarlari gisara eta baita taldekako kate- gorian ere. Nafarroako Pablo Sarasate konser- batorio profesionaleko 1. mailako ikaslea da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Erlotako ikasleek zuhaitzak landatu dituzte

Erlota eskolako bosgarren mailako ikasleek 100 zuhaitz landatu zituzten Zira- te inguruan. Udalatik bultzatutako ekimena irakasleekin batera, herriko bidee- tatik joan ziren oinez bertara eta han giro bikainean lanean aritu ziren mendizai- nen laguntzarekin, lizarrak aldatu zituzten bertan. Bestalde, 100 haritz eta gartzain txartatuak ere landatu dituzte mendizainek Sagarmia eta Lerinarten.

FLASH

Jakoba
Errekondoren
hitzaldia 16an

LeitzEKO, herriko kon- sumo taldeak apirila- ren 16an hitzaldia an- tolatu du Atekabeltze- ko aretoan, 19:30ean. Jakoba Errekondo gon- bidatu dute eta *Elika- dura burujabetza etxe- tik hasten da* izenbu- rupean Zerainen izan- dako esperientziak eta Leitzan abiatutako bi- deaz hitz egingen du.

Edergintza ikasta-
roa dohainik

Eider Agirre zarauzta- rra edergintzako ikas- taroa ari da eskaintzen udaletxean. Ikastaro te- oriko/praktikoa, dohai- nik da eta talde txikitik banatuta ari dira egi- ten. Apirilaren 21ean izanen da lehenbiziko saioa eta azala nola za- indu eta oinarrizko ma- killajearen inguruko aholkuak jasoko di- tuzte. Apirilaren 28an egingen dute bigarren saioa eta makillajeko tekniketari gehiago sa- konduko dute. Intere- sa dutenek 635 719 950 telefonora deituta eman dezakete izena, 24 urte beteta izatea beharrezkoa da.

GIZARTEA → MARTXOAREN 28AN

Autokarabana aparkalekua inauguratu dute Ordokiko Berron

Otsondoko Lizarmeakan eta San Blasko Bentan ere aparkalekuak egokitu dituzte

TTIPI-TTAPA

Bailarako autokarabana aparkalekuak aurkeztu zituen martxoaren 28an Udalak, Ordokiko Berroko aparkalekua inauguratuz. Euskal Autonomi Erkidegoko Sorbeltz eta Nafarroako Tximeleta autokarabanista elkarteek lagunduta, Maite Iturre Turismo eta Merkataritza zinegotziak une honetara arte egindako bidea aipatu zuen ekitaldian.

Turismo autokarabanistaren goranzko joera eta bereziki, Baztanen duen presentzia nabarmena ikusita, Uda-

lak ekin zion duela 3 urte gutxienerako zerbitzuak eskainiko zituen gunea bat bilatzeari. «Irisgarritasun onekoa, laua, publikoa eta zerbitzuen aldetik egoki zen toki aurkitzea ez da lan erraza izan», Iturrek jakinarazitakoaren arabera. Lekarozko kanpuseko albo batean kokapen egokia aurkitu eta Nafarroako Gobernuarekin adostu ondotik, Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen bertan sortzea gunea, baina azken unean Nafarroako Gobernuak gibelera egin zuen, prozesu osoa berriz abiatzera behar-tuz.

Hainbat aukera aztertu eta gero, eta berriki ateratako foru dekretu murriztailea aintzat hartuta, azkenean, Udalak erabaki zuen Ordokiko Berro zubia-
ren ondoko aparkalekua atontzea. Alde batetik,



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Berro zubia-
ren ondoko aparkalekua eta inaugurazio ondotik, bisita gidatua Arizkun-
en.



modu horretan, degradatuta zegoen toki bat berreskuratu da, bertan zegoen zaborte-
gi ilegala kenduz, eta bertze alde batetik, Ipar Euskal Herriarekin lotzen duten bi errepideen elkar-
gunean, hainbat zerbitzutik gertu (ostatua, okindegia, jatetxea, gasnategia, zalditegia eta Arizkun herria bera) erreferentzi puntua sortuz autokarabanendako. Bertan, ura hartzeko eta ur zikinak deskargatzeko instalazioa egin da, merendero txiki bat egokitu da eta 8 autokara-

banendako toki pres-
tatu da. Inguruko eta Baztango informazio turistikoa jasotzen den panela ere jarri da.

OTSONDOKO LIZARMEAKAN ETA SAN BLASKO BENTAN ERE

Iturrek adierazi duenez, Ordokiko aparkalekuarekin batera, Baztar Nagusiak propio baimendu du autokarabanen aparkaleku gisa Otsondoko Lizarmeakako aparkalekua (bertan komunak, iturria, parrilak eta abar daudelarik) eta San Blasko

Bentako aparkalekua (merendero paratu da). Toki bietan ere informazio turistikoko panelak jarri dira. Nabarmentzekoa da 3 autokarabana aparkaleku hauek Done Jakue Bidetik arras gertu kokatzen direla.

Autokarabanistei zuzendutako liburuxka ere argitaratu da, 3 aparkaleku hauek eta Baztanen eta inguruetan dauden kanpinen berri eta bailarako puntu turistikoa jasotzen dituenak. Liburuxka turismo bulegoan egonen da eskuragai eta autokarabanista elkarte ezberdinei ere igorriko zaie.

Inaugurazio ekitaldia Arizkungo bisita gidatuarekin akitu zen, bertaraturako autokarabana turistaren pozerako; Baztanek eskaintzen dituen aukera turistikoa ezberdinez jabetuta, bisita errepikatuko dute-
la agindu dute eta.

ARGIBEL OPTIKA

Eguzkitako betaurrekoak erosteagatik. 70€ baino gehiagoko erosketan.

Opari txartela erabiltzeko epea: 2015/04/15 - 2015/06/30

Santiago, 62
31700 Elizondo (Nafarroa)
Tel. 948 58 13 91
www.argibel.com

POSITIVELY DIFFERENT
HUMPHREY'S
eyewear

-20€

BAZTAN

ABELZAINZA → BALLEKO ETXEAK

Erdiz, Belate eta Lizartzuko nekazariekin zenbait lan adostu ditu

Bazkalekuetan hainbat lan egitekoak dira

TTIPI-TTAPA

Erdiz, Belate eta Lizartzu inguruan azien- dak alatzen dituzten nekazariekin zenbait kon- tu adostu ditu Balleko Etxeak.

Bazkalekuetan sar- tzen diren zezenei da- gokienez, aipatu zen As- pinak bi zezen utzi di- tuela, bat Erdizen azi- enda sartzan duen ne- kazari batek dauka eta bertzea Belaten azien- da sartzan duen bertze nekazari batek. Ikusita Aspinak ez dituela ze- zen gehiago utziko eta nekazariak bazkaleku- etan zezenak egotea na- hi dutela, zenbait era- baki adostu zituzten. Honela, Erdizen 4 ze- zen sartzan ahalko dira eta Belaten 3. Aspi- na-koak 2 bakarrik direnez, partikularrek beren ze- zenak (3 Erdizen eta 2 Belaten) sartzan ahalko dituzte. Zezenak bazka- lekuetan sartzeko inte- resa duten nekazariak

Udalari jakinarazi be- harko diote maiatzaren 17a baino lehen. Pire- naika arrazako zezenek lehenetsuna izanen du- te eta ez bada kupoa betetzen bertze arraze- takoak sartzan ahalko dira. Maiatzaren 21ean zezena sartzeko intere- sa duten nekazarien ze- rrenda begiratuko da eta sartzan ahal direnak bai- no zezen gehiago apun- tatu badira zozketa egi- nen da. Iaztik Aspinako zezenak dauzkaten ne- kazariak 12 behiren sa- ria doan uzten zaie ur- te osoan zezena zain- tzearen truke eta zezen partikularrak sartzan di- tuzten nekazariak 6 be- hiren saria doan utziko zaie.

BAZKALEKUETAN LANAK

Iaz bezala, aurten ere bazkalekuetako iskin- degiak erreparatuko di- ra eta mineral ekologi- koa hedatuko da. Iaz Belateko zohikaztegi- en inguruan hartu ziren konpromisoak eutsiz, bazkaleku horretan 7 bat hektareatan sasitza kenduko da. Nekaza- riak ere zenbait eskari



UTZITAKO ARGAZKIA

Ardo ekologikoa eta gasna uztartu dituzte Gasnaren Astean

Baztango I. Gasnaren astearen barnean Elizondoko Aise elkarteak gasnak ardoekin uztartzeko saioa egin zuten. Autxitxia, Kortariko borda, Baztan eta Jau- regiako ardi eta behi gasnak Lakarreko Lezaun upategiko ardo ekologiko des- berdinekin gurutzatu zituzten apirilaren 3an.

egin zituzten: Belateko kaolin biltegiaren ingu- rua hestea; Belateko Te- lefonikako pista zah- rra botatzea eta aska konpontzea; Larrakar- tera doan pista kon- pontzea; Artesiagako korlea apal geratu bai- ta, altura emateko txar- pa bat gehiago para- tzea, azien- daren ihes ez egiteko; Pitzamarretik Erdizera doan pista kotxeak gurutzatzeko lekuak moldatzea; Er- dizko erreka haitz in- gurua hestea; Belateko gazteluaren ondoan da- goen leizearen ingurua hestea (azienda erortze- ko arriskua omen da); Erdizko Gurutzemeaka askari ziria edo altxa- garria paratzea; Erdizko Altxaldera doan pista konpontzea eta Oiale- giko pistako saingerien erreparoa egitea.

Nafarroako Gober- nuak bere garaian Be-

laten landaketa batzuk egiteko lurzati esperi- mental batzuk egin zi- tuen eta aspaldi ez bai- tira erabiltzen, horiekin zer gertatzen den gal- de egin zuten nekaza- riak. Ingurumen Depar- tamentuarekin harrema- nean jarriko da Udala.

Lepokoen erabilpe- naren gaineko balora- zio positiboa ere egin zen. Dena dela, ikusita zenbait azien- daren lepokoak galtzen dituela, aurten Udaletik lepoko- ak hartzerakoan erabi- liko duten azien- daren identifikazio zenbakia ematea adostu zen, ho- rrela, mendizainek azi- endaren bat lepokorik gabe ikusten badute arazorik izan ez dadin. Nekazariak zein azienda sartu behar duten azken egun artio ez ba- dakite, azien- daren egunean mendizai- nei erraten ahal diete.

FLASH

Helduendako antzerkia Iruritan

Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza aktore ezagunek *Erdibana* ko- media eder eta bere- zia antzeztuko dute Iru- ritako Gizarte Bilgune- an apirilaren 19an, igandean 19:00etan.

Bailableak Elizondon

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaita- rien eskutik, Bailable- ak (Muxikoak, Jotak, Larraindantza, Gaita...) dantzatzeko aukera izanen da hilaren 19an, igandean 12:45ean Eli- zondoko plazan.

Ipuin kontalaria Elizondoko liburutegian

Liburuaren Nazioarte- ko Egunaren harira, apirilaren 22an, aste- azkenean 17:00etan Patricia Eneriz ipuin kontalaria izanen da Elizondoko liburutegi- an, 4 urtetik goitiko haurrendako ipuinak kontatzen.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Isturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ - MUGAIRI

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttppi.eu

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 24TIK 26RA

Berroetako Asteburu Kulturalari begira argazki lehiaketa prest

Apirilaren 23an
akituko da
lanak
aurkezteko
epea

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 24tik 26ra ospatuko den Berroetako Astebururu Kulturalerako, argazki lehiaketa antolatu du bigarren urtez Berroetako herriak, Kortarixar jattetxea, Zamaill harategia, Baztango Udala eta Itxusi Argazki Elkartearen laguntzarekin. Lanak apirilaren 23rako

aurkeztu beharko dira Berroetako Gure Ametsa Elkarteko buzoian edo *berroetakoherria@gmail.com* helbide elektronikora bidalita.

Argazki lehiaketaren gaia Berroeta izanen da bere osotasunean eta edozeinek parte har dezake. Partehartzaile bakoitzak 3 argazki aurkez ditzake lehiaketara, parper formatuan (30x20 edo 20x15 cm) eta formatu digitalean, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Sariei dagokienez, lehenbizikoa afaria bi per-



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Berto Eskolako tikiak finalean kantari

Bikaina izan zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean Elizondoko frontoian biziutako giroa. Berto Eskolako tikiak bota zituzten lehen bertsoak.

tsionentzako eta bigarrena, bertako produktuen sorta bat izanen dira. Partehartzaile guztien artean, sari-zozketa zoragarri bat ere egingen da, partehartzaileak 25 baino gehiago baldin badira.

ASTEBURU KUTURALA

Argazki lehiaketa, erran bezala, apirilaren 24tik 26ra egingen den Asteburu Kulturala girtzeko ekitaldietako bat izanen da.

Apirilaren 24an, ortziralean 17:00etan hau-

rendako marrazki tairrak eta txokolatada antolatu dituzte. 19:30ean *Pura vida* dokumentalaren emanaldia eta 21:00etan afaria eta ondotik mahai jokoen txapelketak. Ortziraleko ekitaldi hauek Hegoaldea elkartearen egingen dira.

Apirilaren 25ean, larunbatean 12:00etan herritarren arteko apustu-desafioa eta herriko erraldioen ikuskizun emanaldia izanen dira. 17:00etan II. Batukada ikastaroa, Eduardo Itu-

ralderekin. 19:00etan Iñaki Atxa eta Juan Lameirinharen eskutik paisaien eta argazki eta bideo emanaldia. 20:00etan argazki lehiaketako sari banaketa egingen da eta 21:00etan afaria eta euskal kantak Salaberriekin. Larunbateko ekitaldiak eta egun osoko argazki erakusketa Gure Ametsa elkartearen egingen dira.

Apirilaren 26an, igande goizeko 9etan abiatuta mendibilaldia egingen dute, Berroetako paisai izkutuen bila.

APIRILAREN 18AN

Amaiurko lixutegi zaharberriaren inguruan emakumearen lanari aitortza egingen zaio

TTIPI-TTAPA

Amaiurko lixutegia: emakumeen lanaren aitortza izenburupean ekitaldi berezia antolatu du Amaiurko herriak apirilaren 18an. Larunbat goizeko 11etan Beatriz Gallego Muñozek *Lixutegiak, emakumeen topaguneak* so-lasaldia eskainiko du Otsondo Barride Elkartean. Ondoren, berriki zaharberri den lixutegira bixita egingen dute, musikaz lagunduta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Itxura ederra du Amaiurko lixutegiak.

Lixutegian plaka jarriko dute, emakumeen

lana aitortzeko eta oroi-garri gisa.

BORTZ LARUNBATEZ

Jendaurrean egoki solasteko emakumeendako ikastaroa eskainiko dute Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Udaleko Berdintasun Batzordeak *Nola hitz egin jendaurrean* emakumeentzako ikastaroa antolatu du. Bortz larunbatez maiatzaren 9, 16, 23, 30 eta ekainaren 6an eskainiko du Esti Redondo Tirado irakasleak Arizkunenea Kultur Etxean, euskaraz eta doan, 09:00etatik 13:30era.

Aitzinetik eman behar da izena Berdintasun Zerbitzuan (948 580006 edo *berdintasuna@baztan.eus*) eta azken eguna apirilaren 30a izanen da.

Helburuen artean, entzulego mota ezberdinen aurrean hitz egiteko osagai eta teknika beharrezkoak lantzea eta jendaurreko egoeratan gure buiarekin ziurtasuna lortzea daude.

URDAZUBI

GIZARTEA → 1757. URTEAN EGINA ZEN

Aroztegia bota eta eraikin berriaren lanak hasiak dira

Eraikin berriaren turismo bulegoa eta erabilera anitzeko gela jartzeko asmoa dago

txe berri bat eraikitze-ko. Oposizioak, bere aldetik, ez zuen egokitzen hartu etxe zaharra botatzea, eta Aroztegi zaharrean burniaren interpretazio gune bat jartzeko proposamena egin arren, Azkar taldeko lau zinegotziek proiektua babestu zu-



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Aroztegi zaharra martxoaren 27an eraitsi zuten.

ten. Badirudi bertan turismo bulegoa eta erabilera anitzeko gela bat eraikitze proiektua dagoela. Azkar taldeko lau kideek ez zuten bat egin gauden urteko urriko batzarrean. Izan ere,

Juan Jose Suhas zinegotziak bertan haurtzaindegi bat egiteko leku aproposa zela erraten zuen artean, alkatetza turismo bulegoa parartzeko leku egokitzat defendatu zuen.

Erabaki honek, ordea, tristura, haserrea eta kezka sortu ditu herritar aunitzengana. Izan ere, herriko ondare historiko eta kulturala ezbaian jarria dela uste dute.

Inigo IMAZ

Herriko Etxeak erosi zuenetik abandonatuta zegoen Aroztegiari agur esan diote urdazubiarrek. 2014ko urriaren 31an egin zen Udal batzarrean onartu bezala, 365.000 euro inguruko aurrekontuarekin, 1757. urtean eraikitako Aroztegi zaharra bota eta eraikin berri bat eraikitze lanak martxan dira. Aroztegi zaharra eraitsi zuten martxoaren 27an, nahiz eta Cederna-Garalur elkarteak emanen dituen 50.000 euroak etxe zaharra berritzeko lanentzat izan eta ez e-



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Nikolaurenearen bigarren urtemuga

Bigarren urtemuga ospatu zuten Nikolaureneko nagusiek, eta aurten ere zenbait abeslari eta musikari gonbidatu zituzten ostatuan ospatu zen afarira. Jaialdiak ordu txikiak arte iraun zuen eta jende mordo bildu zen ostatuaren urtebetetzea ospatzeko.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Aste Santuko pastiza saltzea

Urtero bezala, Zugarramurdi-Urdazubiko eskole-tako guraso eta umeek Aste Santuko pastiza saltzeari ekin zioten. Aurten pastiza guztiak saldu dira eta, hortaz, herri bietako guraso elkarteko kideak pozik agertu dira.



**GARCIA
PELLEJERO**
ALTZARIAK SOFAK KOLTXOIAK

EGONGELAK LOGELAK
MAHAIK ETA AULKIAK
LARRU ETA TELAZKO SOFAK

IXTE-LIKIDAZIOA

APIRILAREN 30ERA ARTE BAKARRIK

IRURITA • Zaldubia Industrialdea • T. 948 54 65 85

MAIATZAK 2
20:00 | Kursaal | Donostia

RAÚL GUARÁren
konpainiak
aurkezten du:

Sabor

GENERO ETA ERRITMO GUZTIAK IKUSKIZUN BAKAR BATEAN



DANTZA, AKROBAZIA ETA ARTE GUZTIAK UZTARTZEN DITUEN MUSIKA IKUSKIZUN ZORAGARRIA
SABOR Raúl Guarak ekoiztutako ikuskuzina da, indartsua, dinamikoa eta energiaz beterikoa.
Kuba, Espainia, Frantzia, Mexiko eta Holandako artista haundiak elkartu dira.
Bi ordutako saioan, beraien ahots, instrumentu eta gorputzen moldakortasuna erakutsiko dute,
27 musika erritmo eta genero ukituz.

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → OREN BATEKO KONTZENTRAZIOAK

Inkisizioa berriz ere hemen dela plazaratu dute

Banderak jarrarazteagatik eta herritarrek jaso dituzten isunengatik protesta

Margari eta Koro

Aste Sainduko lau egunetan, oren bateko kontzentrazioak egin ziren herriko plazan, inkisizioa berriz itzuli zaigula bixtaratu nahian. "Sorgin ihizirik ez. Inkisizioa kanporat" leloekin, bi afera hauei buruzko protesta egin zen: alde batetik, Herriko Etxean banderak jarrazteagatik (ez dugu sekulan banderarik izan orain arte), eta bertze aldetik, hamar herritarrei denetara 4.500 euroko isunak jartzeagatik (igande eguerdi batez kontzentrazio ixil bat egiteagatik).

Aste Saindua

Aste Sainduko egune-

tan jendez-lepo izan dugu herria, eta larunbatean gainera, besta giroa izan genuen: Elutxa txarangaren musika karrika goiti-beiti ibili baitzizaigun.

Elutxa txaranga Borzrietako musikariz hornituta dago, eta gan den udan hasi ziren lanean. Sorpresa bat izan zen Zugarramurdin ikustea, beraien borondatez etorriak baitziren, niorek espreski deitu gabe.

Fernando Arburua atxilotua eta libro

Egoera latzak bizitu zituen Fernando Arburua gan den martxoaren 25ean, bera, bertze psikologo bat, eta bi abokatuekin batera, denitu baitzituzten.

Lau pertsona hauek, euskal presoan osasun egoera hobetzen laguntzen aritzen dira, eta beraien atxilotetak horrekin zerikusia zuen.

Zorionez, handik hiru egunetara libre utzi



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

XXI. mendeko inkisizioak eboluzionatu du: orain jendea sutan erre beharrean, ixunak jarriz kixkaltzen ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Altzateneko mus txapelketa

12 bikotek parte hartu zuten Altzatenea jatetxeak antolatutako mus txapelketan. Txapelkunak Bartolo Kamino eta Juanito Jaurena izan ziren (300 euroko saria), eta azpi-txapelkunak Mattin Arrieta eta Koxe Oronoz (bildots bat eta arnoa).

zituzten, 15.000 euroko fidantza jarri ondotik.

Lapurketak herrian

Azkeneko aste hauetan

lapurketak izan dire herrian. Ohoina sartu denean, etxe gehienak hutsik ziren, eta bere "lana" trankil egiten aritu

da. Harrituak, kezkatuak, eta haserretuak gauden herritarrek, eta ez gara batere babestuak sentitzen.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanc@gmail.com

Bilatu zure bilketarako tokia www.carneecologicanavarra.com
on-line dendan.

Arkumea, txahal eta moxal lote ekologikoak, zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

Bertatik bertara bizi nahi dugulako

trigo limpio

635 715 038 · Garralda - Bera - Saragüeta - Arike - Orontze

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

GIZARTEA → HAUTESKUNDEAK

Kantonamenduan eta herrian zentro eskuinak irabazi ditu bozak

Herrian UMPk 63 bozen aldea bertzerik ez dio atera lehen aldiz bigarren itzulian izan den EH Baire

Franck DOLOSOR

Uztaritzeko kantonamendu osoan bezala, Senperen ere zentro eskuinak irabazi zuen departamenduko hauteskundearen bigarren itzulian. Halere, gure herrian aldea ttikiagoa izan zen EHBairekin; 1.127 boz gehiago eskuinarentzat kantonamendu guziko 9 herriak kontuan hartuz; eta 63 bozen aldea bertzerik ez Senperen. Lehen aldia da ezker abertzalea bigarren itzuliratsa dela, hainbertze boz biltzen duela eta gehiengo osorot hurbiltzen dela. Senperen ere abstentzioa haundia izan zen halere, %47,7 lehen itzulian eta %47,4 bigarrenean. Fronte Nazionalea laugarren indarra da zentro eskuina, ezker abertzalea eta

Battit Laborde sarararren hautagaitza independentearen ondotik. Marine Le Penen alderdia bigarren indarra da aintzira auzoan!

Hauteskundearen ondotik, Jean Jacques Lasserre senatari zentrista izendatu dute Pirinio Atlantikoetako departamenduko kontseiluaren presidente 31 bozekin, hauen artean Philippe Etcheverria eta Bénédicte Luberrriaga kantonamenduko hautetsien aldeko bozak. Apirilaren 2an Pauen egin zen bozketan bertze 20 hautetsik PSeko hautagaia babestu zuten, batek xuri bozkatu zuten eta bik EHBairen alde.

Etcheverria Arrangoitzeko UMPko auzapez eskuindarra da eta Senpere ongi ezagutzen du familia luzaz egon baita gurean eta pilotan aritu delakoz gure plazetan. Euskaraz mintzatu zitzaion Ttipi-Ttapani errateko departamendu kontseiluan pasatu zuten lehen eguna ederki iragan zela eta zinez kontent zirela bozak irabazi izanaz. Ba-

daki berriak direla eta ainitz dutela ikasteko baina hitz eman du lan egingen dutela kantonamenduko 9 herrien alde, batzuk Baionatik biziki hurbil direnak eta bertze batzuk laborantzari arrunt lotuak oraino Sara bezala. Uhabia, Errobi eta Urdazuri ibaietara lana emanen dietela argi dute bi hautesle berriek. Gazteentzat lanpostuak sortzea eta haien artean etxeak erakitzea izanen dira bertze bi lehentasun. Zentro eskuinak badaki kantonamenduen soziologia aldatzen ari dela eta gisa hortan hauteskunde garaian programari hizkuntzetan agertu zuten, www.ehbiho-tzean.com webguneari eman zuten sarean eta Ipar Euskal Herriko be-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Philippe Etcheverria eta Bénédicte Luberrriaga Uztaritzeko kantonamenduko departamendu kontseilari izendatu berriak Pauen. Joana Urbistondo, Santiago Capendegi, Aihena Labeguerie eta Artzai Mendiburu senperrarra EHBaiko hautagaia bi itzulien artean.

rezko egitura baten alde mintzatu ziren. Hauteskundeetan aurkeztu ziren bertze hautagaiekin egin ziren eztabaida publikoetan ez zuten parte hartu Etcheverriak eta Luberrriagak.

Ondoko sei urteetan Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusiak izanen dira, bertzeak bertze senperrak eta saratarren ahotsa Baiona eta Pauerat eramanez.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Momotxorroak Senperen

Bada jadanik urte andana parezkatzearen harremanak eten zirela Altsasu eta gure herriaren artean. Dena den, senperrak ainitzek gogoan dute oraino duela urte batzuk nafarrak gure karrika nagusirat heldu zirela ihauteri kari beren moztorro harrigarri eta beldurgarriekin. Aurten Senpereko zonbait gazte momotxorro gisan agertu dira ihauterietan eta gaitzeko giro ona piztu zuten. Lehen urratsa agian altsasuarrekin loturak berpizteko?

SENPERE

LEHEN ITZULIKO EMAITZAK

UMP (Etcheverria, Luberrriaga)	524 boto	%23,32
EH Bai (Capendegi, Urbistondo)	415 boto	%18,47
Independ. (Haran-Larre, Laborde)	381 boto	%16,96
FN (Colin, Franco)	351 boto	%15,62
Zentroa (Laduche, Laffitte-Lefebvre)	272 boto	%12,11
PS+aliatuak (Bleiker, Di Fabio)	267 boto	%11,88
EAJ-PNB (Gellie, Renaud)	37 boto	%1,65

BIGARREN ITZULIKO EMAITZAK

UMP (Etcheverria, Luberrriaga)	1 097 boto	%51,48
EH Bai (Capendegi, Urbistondo)	1 034 boto	%48,52

SARA

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 25EAN

Txin'goody Paradise reggae festibala herrian eginen dute

Kontzertuak
18:00etan
hasiko dira

Joana GERENDIAIN

Bere 6. ediziorako txin'goody paradise reggae festibalak Sarako herria hautatu du. Apirilaren 25ean larunbatarekin iraganen da. Egun horretan mundu osotik etorritako reggae musika entzuten ahalko da kiroldegian: Joseph Cotton (Erresuma Batua) DJ-a Frantziako Atili Bandalero Djak sustengaturik, ondotik Italiako Raphael kantaria Euskal Herriko Revolutionary Brothers-ek sus-

tengaturik; Txingoody Roots Band, ADN Noar (Bretania) eta Dawa Crew.

Kontzertuak arratsaldeko 6 etan hasiko dira goizeko 2ak arte. Sartzea 10 eurotan da. Bertan bio edariak eta rasta janaria zerbitzatuak izanen dira. Informazio gehiagorentzat: 05.59.48.14.14

Joko berri finalak

Joko berriko lau mailen finalak apirilaren 18an, larunbata, kiroldegian jokatu dira. Partidak arratsaldeko 2etan hasiko dira. Iluntsean zintzur bustitze eta jateko pintxoak pro-



ARGAZKIA: PIERRE EZKURRA

Partehartzaile aunitz hamargarren Sara Korrika Trailean

Martxoaren 29an, 600 bat korrikalari hurbildu dira Sara Korrikak antolatutako trail-era. 3. aldiko Oier Arriznabarretak irabazi du, 2 ordu eta 4 minutu eman ditu, Christian Montuelle bigarrenak eta Baptiste Cazaux hirugarrenak denbora berdina eman dute (2h, 7'). Emazteetan lehena Sarah Dinclaux izan da, itzulia 2 ordu eta 41 minutuz egin du, 61. sailkapen orokorrean. Ondotik, Geraldine Aubier (2h, 45') eta Sandrine Prisse (2h, 46') zituen. + info kirol orrialdeetan.

posatuak izanen dira. Partidak ikusteko sartzea urrik da, aldiz edateko eta jateko 10 euro ordaindu beharko da.

Kirol emaitzak

Martxoaren 28an, eskubaloian 13 urtez azpikoek Bokaleren kontra 17-12 irabazi dute, bertze ekipa guzietan galdu

dute: 11 urtez azpikoek Irisarriren kontra 18-17, 15 urtez azpikoek Bokaleren kontra 16-15, 18 urtez azpikoek Nafarroaren kontra 26-20 eta seniorrek Larrunsten kontra 21-18.

Kantaldiak

Apirilaren 16an, osteguna, Saiberri talde-

ak kantaldi bat emanen du elizan, gaueko 9etan. Sartzea 5 eurotan izanen da, urrik 14 urte baino guttiagokoentzat. Apirilaren 30ean, osteguna, Sarako Erlauntza eta Ortaizeko Ortaiztarra abesbatzek kantaldi bat emanen dute elizan, gaueko 9etan. Sartzea 5 euro izanen da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
 ♥ Soinekoak
 ♥ Ilerako apaingarriak
 ♥ Poltsak
 ♥ Bisuteria
 ...
 Bidasoa, 12 • BERA
 948 631 425

EZKONTZAK

Ez dago datu berririk.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Xuban Arregi Mutuberrria, Urkizukoa, martxoaren 19an.

Adei Sanchez Mutuberrria, Doneztebekoa, martxoaren 29an.

Ekain Juanena Irurueta, Elgorriagakoa, martxoaren 31n.

Aiert Baleztana Goñi, Arantzakoa, apirilaren 4an.

Arane Azkarraga Irungarai, Azpilkuetakoa, apirilaren 1ean.

Haize Bidegain Andiazabal, Sarakoa, martxoaren 22an.

Hugo Dupin, Sarakoa, martxoaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Francisca Baleztana Albistur, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 26an, 89 urte.

Leoncio Errandonea Endara, Alkaia-gakoa, martxoaren 27an, 91 urte.

Teresa Telletxea Urtxegi, berakoa, martxoaren 29an, 88 urte.

Jesus Ansalas Arretxea Artxintxe, Etxalarkoa, martxoaren 29an, 71 urte.

Gertrudis Perurena Narbarte, Berakoa, martxoaren 31n, 75 urte.

Ignacio Iriarte Sarasola, Etxalarkoa, martxoaren 31n, 82 urte.

Mary Bikondoa Plaza, Elizondokoa, apirilaren 1ean, 81 urte.

Francisca Mariezkurrena Iraizoz, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 2an, 83 urte.

Josefa Martina Gamio Bikondoa, Elizondokoa, apirilaren 2an, 91 urte.

Matiasa Aleman Maskotena, Zugarramurdikoa, apirilaren 5ean, 84 urte.

Joxe Antonio Irigoien Larrea, Goizuetakoa, apirilaren 6an, 54 urte.

Mari Paz Iribarren Agirre, Elizondokoa, apirilaren 7an, 76 urte.



Joseba Andoni URDANITZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

XIII. URTEURRENA

*Udaberriak bizia ekarriz
Zure askatasun modua gogoratzen du
Zure ametsak buruan izanik
Zure indarra guria egiten dugu.*

ZURE FAMILIA



Leoncio ERRANDONEA ENDARA

Alkaia hil zen 2015eko martxoaren 27an,
91 urte zituela

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA

*Rekordatorioak
egiten ditugu*

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

MENDI LASTERKETA → APIRILAREN 18AN

Mendi Maratoi Erdiaren bezperan ere hainbat ekitaldi prestatu ditu Manttalek

Eskalada sprint lehiaketa, aizkolariak eta mendi proiektzioa izanen dira

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, Agerra Mendi Taldea eta Gure Txokoaren laguntzarekin, apirilaren 19an ospatuko den Berako Mendi Maratoi Erdiaren bezperan hainbat ekintza antolatu ditu. Eskalada sprint lehiaketa izanen da lehenik, aizkolariak ondoren eta mendi proiektzio bat bukatzeko.

Ekintza hauek apirilaren 18an hasiko dira Altzateko frontoian, larunbat arratsaldeko 3:30etik aitzinera Abiadura Eskalada Txapelketarekin. Izen ematea internet bidez egin daiteke manttaletaldea@gmail.com helbidera idatziz edo eta egunean berean. Bi kasuetan prezioa 5 eurokoa iza-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eskolako frontoiko paretan eginen dute eskalada, Zia errekaaren ondoan.

nen da federatuentzat eta 8 eurokoa federatu gabekoentzat. Gizon eta emakumezko seniorretan irabazleek txapela, trofeoa eta 100 euro jasoko dituzte, bigarrenek 75 euro eta hirugarrenek 50 euro; 17 urtez behekoen artean ere opariak izango dira lehen sailkatuentzat. Kanporaketak 15:30ean hasiko dira eta 18:30etik aitzinera finalak Rikardo Baroja eskolako frontoien kanpokaldeko

paretan, Zia errekaaren ondoan.

AIZKORAN JAUTSIERA KANPORAKETAK

Kanporaketak bukatzerakoan eta finala baino lehen, 17:30 aldera, kiroldegiko kanpokaldean aizkolarien arteko lehia izanen da. Lehenengo proban Iban Resano (Dorrao), Angel Eraso (Salinas de Oro) eta Xabier Mindegiak (Beintza Labaien) Nafarroako Bigarren Mai-

larako jautsiera kanporaketa jokatuko dute. Bertzalde, Euskal Herriko Bigarren Mailarako jautsiera kanporaketa Ruben Saralegi (Leitza) eta Juan José Lópezek (Lezaun) jokatuko dute.

Eguna bukatzeko, Beralandetan, Iñaki Razkinek Himalaya Txinatarrean egindako espedizioaren inguruan proiektzio bat eskainiko du. Kulum mendikateko Muztagh Ata (7.546

metro) mendian egingakoa hain zuzen ere.

OINEZKO IBILALDIAK ETA LAGUNTZA

Lasterketa egunean, igandean, bertze urtean bezala, bi ibilaldi antolatu dira lasterketa ikustera joateko. Lehenengo goizeko 8etan abiatuko da Laruneraino igotzen dena eta handik berriz Berara jautseko (14 kilometro) eta bigarrena 08:30ean abiatuko da Landagaitarajoaten dena Usategietatik pasatuta, 10 kilometro ingurukoa. Maratoi Erdia 09:30ean abiatuko da.

Gure Txokoa elkarrekin, bere aldetik, jendea behar du Mendi Maratoi Erdiaren irteera eta helmuga antolatzeko. Jende aunitz elkartzeko bada bi talde ere egin ditzake, bat irteera antolatzeko (08:00etatik 10:00etara) eta bertzea helmugarako (11:00etatik 14:00etara). Laguntzeko prest dagoenak guretxokoaelkarrea@gmail.com helbidera idatz dezake.

URBEN

ARKITEKTOAK

ETXEGINTZAN AHOLKULARITZA

ENERGIA ZIURTAGIRIAK
TASAZIO HOMOLOGATUAK
PERITAZIO INFORMEAK

ZAHARBERRITZEAK
ERAIKUNTZA
PROIEKTUEN GAUZATZEA

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
(ITE)

TELF. 688 88 77 77 estudio@urbanarquitectos.com

URBEN EASO 77 S.L. ARANTZA, AZKILLARREA 23. DONOSTIA, EASO KALEA 77,7°. www.urbenarquitectos.com

MENDI LASTERKETA → HAMARGARREN EDIZIOA BURUTU ZEN MARTXOAREN 29AN

545 korrikalarik bukatu zuten Sara Korrika Trail lasterketa

Oier Ariznabarreta eta Sarah Dinclaux izan ziren irabazleak

TTIPI-TTAPA

Sara Korrika Trail mendiko lasterketaren hamargarren edizioa burutu zen martxoaren 29an eta euriari eta lohiari aurre eginez, 545 korrikalarik lortu zuten 25 kilometro luze eta 1.443 metroko goranzko maldaketa 1442 metroko beheeranzko maldak dituen proba gogorra bukatzea. Iaz bezala, Durangoko Oier Ariznabarreta izan zen bizkorrena, baina joan den urtean egindako errekorra baino hamar minutu gehiago behar izan zituen lana burutzeko (2:04:43). Endurance 65 taldeko bi korrikalarik osatu zuten podiuma, aldi berean



ARGAZKIAK PIERRE EZCURREA

Goitian, podiuma. Behean, korrikalariak galtzadan.

helmugaratuta: Christian Montuelle eta Baptiste Cazaux (2:07:13).

Emakumezkoetan Sarah Dinclaux izan zen bizkorrena (2:41:54), En-

durance 65 taldeko Geraldine Aubrion bigarren (2:45:30) eta Sandrine Prisse hirugarren (2:46:15).

Eskualdeko korrikalari nagusien artean, Manttaleko Anjeltxo Aranibar hogeita bigarren izan zen (2:26:46), SPUC Lasterka talde senpenterako René Irubetagoiena 27. (2:28:08), Igantziko Biltokiko Mikel Urtxegi 37. (2:34:42) eta Sara Korrika taldeko David Nesprias 41. (2:36:16).

ESKUALDEKO KORRIKALARIAK	
22	Anjeltxo Aranibar-Bera
27	René Irubetagoiena-SPUC
37	Mikel Urtxegi-Igantzi
41	David Nesprias-Sara
44	Aitor Berra-SPUC
52	Iñaki Larrañaga-Bera
57	Fred Arnestoi-Azkaine
59	Stephane Aranaz-SPUC
96	Daniel Zabala-SPUC
101	Didier Labeguerie-Azkaine
103	Bernard Seillan-SPUC
104	Beñat Sein-SPUC
111	Stéphane Zamora-SPUC
121	Carole Duhart-SPUC
123	Nicolas Etxeberri-SPUC
130	Stéphane Deuillard-SPUC
194	Manolo Gouraud-Bera
202	Christophe Claudio-SPUC
203	Xabi Agerre-SPUC
208	Alexis Reberg-SPUC
210	Michel Sein-SPUC
214	Patxi Olasso-Azkaine
221	Bettiri Lacarra-Azkaine
313	Totte Jauregiberri-SPUC
365	Jerome Turnaco-SPUC
422	Michel Sein-SPUC
441	Sophie Aniotzbehare-Azkaine
442	Claudine Sein-SPUC
443	Pierre Dubroca-SPUC
480	Michel Langon-Azkaine
490	Albert Diaz-Azkaine

Emakumezkoetan, SPUCeko Carole Duhart bosgarren izan zen (2:55:28), Azkaingo Sophie Aniotzbehare 50. (3:56:31) eta SPUCeko Claudine Sein 51. (3:56:42).


MENDI LASTERKETA → ABUZTUAREN 30ERAKO

Oinezen eskutik Elizondo-Aldude-Elizondo proba

TTIPI-TTAPA

Udaberri eta uda honetan gure mendietan oinez nahiz lasterka ibiltzeko hitzordu ugari prestatu dituzte. Hain zuzen, bi ariketa horiek uztartuz, Nafarroa Oi-

nezek ere abuztuaren 30erako proba berezia prestatu du, 27 kilometro luze eta 1.661 metroko desnibel positiboa izan den Elizondo-Aldude-Elizondo mendiko ibilaldi-lasterketa.



Elizondotik abiatu (200 m.) eta Larramendi, Urballo, Albako harria (1.037 metro, ibilbideko puntu gorena, 8'5

kilometroan), Belaun, Aldude, Berdaitz, Basabar, Burga, Maulitx, Góisemes, Atzarreta eta Intzuri (1.450 m.) kilometroan), Belaun, Aldude, Berdaitz, Basabar, Burga, Maulitx, Góisemes, Atzarreta eta Intzuri (1.450 m.)

Elizondon helmugaratuko dira partehartzailerak. Izen emateko epea laister irekiko du Nafarroa Oinezek.

apirilak 16 - 30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

et Max 17:00etan Lur Berri gelan.

Solosaldiak



AMAIUR | 2015.04.18

Emakumeen lanaren aitortzaz hitzaldia

Amaiurko lixutegi zaharberriua inauguraturako duten egunean, *Lixutegiak, emakumeen topaguneak* solosaldia eskainiko du Beatriz Gallego Muñozek, 11:00etan.

Kontzertuak



BERA | 2015.04.25

Mikel Urdangarinen kontzertua Berako Kultur Etxean

Mikel Urdangarín bakarlarri eza-guna Berako Kultur Etxean izanen da apirilaren 25ean. 20:00etatik aitzinera kontzertua eskainiko du. Sarrera 6 eurokoa da.

Solosaldiak



LEITZA | 2015.04.16

Jakoba Errekondo elikadura burujabetzaz

Leitzako Kontsumo Taldeak gonbidatuta, Jakoba Errekondok *Elikadura burujabetza etxetik hasten da* hitzaldia eskainiko du Ate-kabeltzen, 19:30ean.

Kontzertuak

SENPERE

Hendaia Gatzelu Zahar abesbatza

Apirilaren 17an polifonia kantaldia, 20:30ean.

BERA

'Iksandarraren bidea'

Apirilaren 18an kontzertu didaktikoa, Kultur Etxean, 19:00etan.

Bera kantari

Apirilaren 25ean Illekuetatik 19:00etan.

Mikel Urdangarinen kontzertua

Apirilaren 25ean Kultur Etxean, 20:00etan. Sarrera: 6 euro.

LESAKA

Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko ikasleak

Apirilaren 19an Harriondoan, 12:30ean.

SARA

Kantaldia elizan

Apirilaren 16an Saiberrri taldea, 21:00etan.
Apirilaren 30ean Sarako Erlauntza eta Ortaizeko Ortaiztarra abesbatzak, 21:00etan.

Reggae festibala

Apirilaren 25ean Txin'Goody paradise festibala, 18:00etan.

BAIGORRI

Musikaldia elizan

Apirilaren 25ean Guk Ta Guk-Tarrak kantaldia, 21:00etan.

Azokak

SARA

Merkatua

Apirilaren 17an plazan 16:30etik aitzinera.

ERRATZU

Batzango artisauak**Solosaldiak**

BERA

'Kurduen garaia ailegatu ote da?'

Apirilaren 16an Karlos Zurutzarekin, 19:00etan Beralandetan.

LEITZA

'Elikadura burujabetza etxetik hasten da'

Apirilaren 16an Jakoba Errekondorekin, Ate-kabeltzen (19:30).

AMAIUR

'Lixutegiak, emakumeen topagune'

Apirilaren 18an Otsondo Barride elkar-tean, 11:00etan.

DONEZTEBE

Sare sozialen inguruko hitzaldia

Apirilaren 22an DBHko liburategian, 10:00etan.

Antzerkiak

IRURITA

Helduentzako antzerkia

Apirilaren 19an *Erdibana* antzezlana Gizar-te Bilgunean (19:00).

Ipuin-kontalariak

ELIZONDO

Patricia Enerizekin

Apirilaren 22an Liburategian 4 urtetik goitikoentzat, 17:00etan.

Tailerrak

BERA

Meditazio saioa

Apirilaren 17an Beralandetan, 18:30ean. Bidazik antolatuta.

DONEZTEBE

Dementzia dutenentzat musikoterapia saioa

Apirilaren 16an Male-rrekako Mankomunitatearen egoitzan, 19:00etan.

BERROETA

Asteburu Kulturalaren barne

Apirilaren 24an haur-erentzako marrazki tailerrak 17:00etan.

Apirilaren 25ean batu-kada ikastaroa (17:00).

ELIZONDO

Xaldun Kortin hurrekin euskaraz jolasteko

Apirilaren 30ean Arizkunenean, 17:30ean.

DONAMARIA

Batukada ikastaroa

Apirilaren 15ean hasi-

ta bortz asteazkene-tan, 18:00etan.

LEITZA

Edergintza ikastaroa

Apirilaren 21ean eta 28an. Dohainik.

Ikuskizunak

BERA

4-8 urtekoentzat

Apirilaren 23an *Mari-kalanbre bizitzaren laborategian.*

SARA

Haurrentzat ikusgarria

Apirilaren 19an *Zazie*

PROPOSAMENA

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna apirilaren 26an

Baigorriko Basaizea Kultur Batasunak antolatuta, bertze urte batez Nafarroaren Eguna ospatuko dute apirilaren 26an. Egun osoan, musikariak karriketan, bertsolariak, dantzariak, ziganteak, erakusketak, bazkaria, kontzertuak... izanen dira. Berrikuntzen artean, haurrentzako txoko berezia sortu dute Irrien Lagunak elkartearekin eta karrikako animazioak gehitu dituzte.



Maiatzaren 2an plaza, 10:00-14:00.

Dantzak

ELIZONDO

Baillableak

Apirilaren 19an Baztango dantzari eta Elizondoko gaiteroekin, 12:45ean plazan.

Lehiaketak

BERROETA

'Berroeta' gaitzat duen argazki lehiaketa

Apirilaren 23ra arte aurkez daitezke lanak.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketa

Apirilaren 17ra arte aurkez daitezke lanak.

MALERREKA

Argazki eta kontakizun lehiaketa

Apirilaren 24ra arte aurkez daiteke *Malerrekako leihotik begira. zuk zeuk nola ikusten duzu?* izeneko lehiaketara.

Ospakizunak

BERROETA

Asteburu Kulturala

Apirilaren 24tik 26ra.

BAIGORRI

Nafarroaren Eguna

Apirilaren 26an. Egun osoan hainbat ekitaldi izanen dira.

DONEZTEBE

Nafarroako Akordeoilarien Topaketa

Apirilaren 19an 11:30etik aitzinera.

Ehunte Eguna

Apirilaren 25ean.

Filmak

ETXALAR

'Jostunak' dokumentala

Apirilaren 17an Kultur Etxean, 18:30ean.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua

HATSAren POESIA
Olerki Bilduma
2015



Hatsaren Poesia
Olerki Bilduma 2015

AUXTIN ZAMORA

Hatsa Elkarte, 2015

> **H**amazpi urtez segidan Euskal Herri osoko olerkiak bildu eta plazaratu ditu Hatsa Elkarteak hainbat liburutan eta aurten ere bide beretik jo du. Auxtin Zamora senperrak Hatsa Elkartearen izenean egin duen hamazazpigarren olerki bilduma da argitaratu berria dena. Ehun bat olerkarik eta hainbat ikastetxetako ikaslek parte hartu dute edizio honetan. Olerkarietako batzuk ezagunak dira, baina aunitz ezezagunak. Tartean badira eskualdeko batzuk ere: Hasier Larretxea arraioztarra, Ainara Maia Urroz, Mikel Taberna beratarra, Auxtin Zamora senperrak, Beñardo Goietxe... Eskualdeko ikastetxe batzuk ere parte hartu dute olerki bilduma honetan, Igantziko eskolak eta Senpereko Zaldubi Ikastolak, erraterako.

Musika



Jolasean Ikasi,
Musikaz Hazi

KONTUKANTARI

2015

Kontukantari txotxongilo taldeak hamar kanta kezagun eta herrikoi bildu ditu *Jolasean ikasi, musikaz hazi* izeneko bere lehendabiziko lan honetan. Kanta horiek *Txiki Txikia, Txakur bat, Kanuto, Txan Txibiri, Ran Rober Ran, Sorgina Pirulina, Baga Biga Higa, Ixil-Ixilik, Itsasontzi baten, Ez goaz lanera* eta *Gora ta gora beti* dira. Guztion oroitzapenean dauden kantak dira eta bertze erritmoetara moldatu dituzte: reggae, rap edo blues erritmoetara, erraterako. Roberto Castro *Boti* musikariarekin eta Sandra Agirre kantariarekin batera, Itziar Fragua, Iñigo Eibar eta Marta Alvarezek osatzen dute taldea.

Internet



Euskaraz sortu den
lehenbiziko sare soziala

WWW.ELAIDE.EUS

Euskaraz sortu den lehenbiziko sare soziala da www.elaide.eus. Euskal hiztunak eta hizkuntza ikasten ari direnak elkartuko dituen txokoa da. Sare sozial berrian euskaraz bizitzeko eta euskara lantzeko hainbat harreman nahiz baliabide aurki daitezke. Zaletasunak eta interesak partekatu daitezke, planak egin, albisteak komentatu... taldean aritu nahi duenak txaterako eta interesak partekatuzeko gunea ere badu; kontsultak edo proposamenak egin daitezke; planak antolatuzko, bertzelako beharrak asetzeko edo proiektuak egiteko. Nafarroako hainbat tokiko erakunde eta euskaltegik bultzatu duten egitasmoa da, tartean Bortzietako eta Malerrekako Euskara Mankomunitateak.

DONEZTEBE

Denboraldiko azken filma

Apirilaren 26an

Horton filma euskaraz.

BERA

Dokumentala Maratoi Erdiaren bezperan

Apirilaren 18an *Muztagh (7.546 m)* Iñaki Razkinekin Beralandetan, 20:00etan.

BERROETA

Asteburu kulturala

Apirilaren 24an *Pura vida* dokumentala, 19:30ean.

Apirilaren 25ean Iñaki Atxa eta Juan Lameirinhasen eskutik paisaien argazki eta bideo saioa, 19:00etan.

Mendi irteerak

BERA

Mendi Maratoi Erdia

Apirilaren 19an

09:30ean hasita.

BERROETA

Herriko paisaia ezkutuen bila

Apirilaren 26an

09:00etan abiatuta.

ETXALAR

Zanpingorri taldearen ateraldiak

Apirilaren 19an Larunera, 08:00etan plaza-tatik abiatuta.

Apirilaren 26an Baigorri, 08:00etan plaza-tatik abiatuta.

II. Mendi Itzulia

Maiatzaren 2an.

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldiak

Apirilaren 19an Azpilkuetatik abiatuta Baztango Mendi Itzuliren zati bat, 07:00etan abiatuta.

Apirilaren 26an Baigorri, 07:00etan abiatuta.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, 60 m²ko bajearekin. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Bajera eta etxea elkarrekin. 112.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian - Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI - Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE - **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

LESAKA. 98 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela 1, egongela su bajearekin, sukalde despentsarekin eta moblezatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

IRUÑEA. Buztintxuri azoan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, igogailua, aparkaleku eta trastelekuarekin. Moblezatua, kalitateko eraikina eta altzariak. Komunitateko lorategia, inguru lasaia eta ongi komunika-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ **GERO 10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tuta. 153.000 euro. ☎655 826221.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

DONEZTEBE. 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. 300 euro. ☎667 334139/618 834892.

DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 300 euro. Pisua estrenatze-



ko dago. ☎674 847735.

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



BERA. Bidasoa karrika 43-3bn, 65 m²ko apartamentua errentan emateko. 2 logela, komuna, sukalde-egongela, terraza, garajeko marra eta trastelekuarekin. Egokitua dago, bista onak eta ongi komunikatua. ☎687 926414.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eitzetako plaza lur azpiko garaje itxia salgai. ☎646 774117.

LESAKA. 93 m²ko baje-ja salgai, Koskontako Bidea 11n. Etxebizitza egiteko aukerarekin. Gasa, ura eta argindarra sartuak ditu. ☎609 445769.

LESAKA. 48 m²ko baje-ja salgai edo errentan emateko, Koskontako Bidea 3. zenbakian, beheto solairua 6. Alarma sistemarekin, pertsiana elektrikoarekin eta bi komun. Bulegoa izateko prestatua. ☎609 445769.

LEITZA. 14 gelako Jai-Alai ostatua salgai, oso egoera onean. ☎606 365798.

LESAKA. Osiña arropa-denda salgai. ☎667 973563 / 948 637951.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

IRURITA. Janari-denda traspasatzeko. ☎660 110772.

ELIZONDO. Santiago Karrikan, 58. zenbakian behean, kontsulta-bulego ekipatua egunka konpartitzeko edo errentan emateko. ☎633 830086 (Juan).

GARAJEAK/LOKALAK

errentan hartzeko

BERA. Bajera bat errentan hartu nahi da. ☎637 265587.

LANA

eskariak

ARANTZA. Neska bat etxeko lanetan, zerbitzari, sukaldari laguntzaile, umeak eta adinakoak zaintzen ariko litzateke. ☎606 304610.

MALERREKA, BAZTAN, BORTZIRIAK... Gazte bat edozein lanerako prest: egurra moztu, paretak margotu, trastoak garraiatu... ☎659 655178.

Emakumezkoa adinekoak zaintzeko prest. Bertakoa eta esperientziaduna. ☎606 552350.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Jattetxe batean zerbitzaria behar da. Asteburuetan eta udan lan egiteko. Frantsesez jakitea ezinbertzekoa eta esperientziaduna. ☎948 599187.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 47 € (=)

Zerri gizena
1,148 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,450 € Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,16

1.koa 4,96

2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,26

1.koa 4,00

2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 238,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,90/6,50

8-10 kilokoak: 5,50/5,70

ETXALAR. Hotel-Benta Etxalaren uztailean eta abuztuan ostatuan lanean aritzeko pertsona bat behar da. Ahal bada euskaraz dakiena eta esperientzia duena. Bidali curriculuma: info@etxalar.com.

ETXALAR. Hotel-Benta Etxalaren asteburuetan jatetxean lanean aritzeko pertsona bat behar da, ezkontzetan, komunioetan eta taldeekin aritzeko. Esperientzia badu hobea. Bidali curriculuma: info@etxalar.com.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean frantseza dakien eta esperientzia duen zerbitzaria behar da. ☎948 599146 / 948 599009.

Peugeot Partner autoa salgai, 90 zaldi. Arras egoera onean. Ongi zaindua. Extrak. 2010ekoa. ☎699 375558.



MOTORRAK
tailerrak



DENETARIK
salerosketak

Zortzi marmolezko mahai salgai, zortzi lagunendako (oktogonak). ☎948 585036.



Sei altzairuzko fregadera salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



ORNOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta



haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.

Gasezko sukalde industrialia salgai. ☎948 585036.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

BCS diskoa salgai. 400 eurotan. ☎680 265671.



Urteko bigarren zk. saritua
7.698

Eskualdeko dendetan gastatzeko 300 €ko erosketa txartela

Saritua ekainaren 30a baino lehen deitu behar du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

948 63 52 54

BERAKOUDALA

OSOKO BILKURAREN AKORDIOA
-HIRIGINTZA-

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2015eko martxoaren 10ekoa:

Udal Plan Orokorraren aldaketa xehekatua, Lur ez urbanizagarriko hirigintza arautegi orokorra eta Hirigintza arauak aldatzen dituen, Udalak sustatua, hasiera batez onestea.

Espediente hau jendearean izanen da hilabete batez, dagokion iragarria NAOn argitaratu ematen direnetik.

Bera, 2015.04.08
ALKATEA,
M^o Sol M. Taberna Iratzoki

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegi.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miquel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ANIMALIAK
salgai

Border Colly arrazako txakurkumeak salgai. Atta eta ama artzain bikainak. Nola lan egiten duten erakutsi daiteke. ☎669 425903.



MOTORRAK
salgai

Seat Leon 1.9 TDI autoa salgai, 105 CV. 70.500 KM. 2009koa. Garajea lo egina. 9.800 euro. ☎677 084693.



LIDERRAK GURE ESQUALDEAN

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere

TTIPI-TTAPA
27.000 irakurle

D. NOTICIAS 12.000 irakurle
D. NAVARRA 10.000 irakurle
GARA 8.000 irakurle
MARCA 2.000 irakurle
BERRIA 2.000 irakurle
BESTE BATZUK 7.000 irakurle

Sexuaren arabera
GIZONAK %36,80
EMAKUMEAK %63,20

Adinaren arabera
14-24 urte %8,50
25-34 urte %15,10
35-44 urte %25,40
45-54 urte %20,90
55-64 urte %17,90
+ 64 urte %12,20

Ikasketa mailaren arabera
IKASKETARIK GABE %1,40
LEHEN IKASKETAK %11,70
LANBIDE HEZIKETA %37,00
BATXILERGOA %30,80
UNIBERTSITATEA %19,00

Datu iturria:
CIES 2014ko 2. neurketa

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€
Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,38€ko 11 edo 22 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



KATIXA MADARIAGA APEZTREA lesakarrak 7 urte bete ditu apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Zorionak amaxil **ZEZILIA BALDA TELLETXEAK** urteak beteko ditu. Apirilaren 24an prestatu bizkotxo goxo-goxoa elkarrekin ospatzeko zure eguna. Muxu asko!



JERAI BAZTERRIKA ANT XORDOKIK apirilaren 13an 2 urte bete ditu. Zorionak Sunbilla eta Igantziko familiaren eta berexiki Alaine arrebaren partetik. Muxuak.



ENAITZ BALDA AGINAGAK 2 urte beteko ditu heldu den apirilaren 20an! Zorionak era muxu potolo bat etxeko guztien partetik.



Arantzako **XUBAN TABERNA MUTUBERRIA**: zorionak zure 9. urtebetetzean! Auniz urte familia guzia eta berexiki lehengusuen partetik. Muxu bat!



Auniz urtez Berako **ANDER PAGOLOA LOPEZI** familia guzia eta berexiki Jon, Asier eta Naroaren partetik. Muxu handi bat eta ongi pasa eguna!



AINHIZE ARNEDO MITXELENAK urtea beteko du apirilaren 26an. Auniz urte eta muxu handi bat Doneztebe eta Igantziko familiaren partetik eta berexiki Eñaut, Oier, Aratz, Intza eta Alazneren partetik.



Oizko **EIDEN ELETA GOÑIK** apirilaren 16an urtea beteko du. Auniz urte potxolo eta muxu handi bat familiaren partetik!



Igantziko **XUBAN BEREAU TXOPERENAK** apirilaren 6an urtea bete du. Auniz urte potokto eta muso handi bat ebekoaren partetik.



Sunbillako **MAIDER PETIRENAK** apirilaren 10ean urteak bete ditu. Auniz urte familia guztia partetik eta berexiki argazkian zurekin dagoen hirukotearen partetik. Afari goxo-goxoa prestatu. Zorionak!



Zorionak! Eta 9 muxu Sunbillako **EGO IRIGOIEN ARRETXEARI** apirilaren 19an urteak beteko dituelako. Iruritako izeba Mari Joxe eta Kozpi laguna.




CARLOS eta **AINHIZE** osaba-lobek urteak bete dituzte apirilaren 3an eta 26an. Auniz urte bie! Besarkada bana! Zorionak osabaaa!



Urdazubiko **PABLO OLAIZOLA ESPELOSINEK** urteak beteko ditu apirilaren 18an. Auniz urte aitaitxi! Zure biloba Pablo Irazoki Olaizola, Zuhaitz eta familiaren partetik.



Berako **GARAZI ARBURUA ZELAIETAK** 7 urte bete ditu apirilaren 2an. Auniz urte eta muxu handi bat familia guztia partetik.



Zorionak bikote! **JOANESK** maiatzaren 1ean 6 urte eta **MAIALENK** maiatzaren 3an 3 urte beteko dituzte. Muxu bat aita eta amaren partetik eta berendu goxo-goxoa prestatuko dugu.



UXUE eta **EIDER APEZTEGIA BAÑEZAK** urteak beteko dituzte apirilaren 24an eta maiatzaren 2an. Zorionak familiaren partetik.



Elko, Nevadako **KYLE OWSLEY** Igoak 13 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



SANTESTEBAN TAILERRAK

Leitzako errepidea
DONEZTEBE
T. 948 450 282
F. 948 450 857
doneztebe@red.renault.es



CLIO DYNAMIQUE 1.5 DCI 90 CV
Estreinatu gabea
Nabigatzailea, Klimatizagailua...



SCENIC III SELECTION DCI 110 CV
Estreinatu gabea
Klimatizagailua, 6 marxa...



MEGANE III EXPRESSION DCI 110 CV
58.000 km



MEGANE SPORT TOURER DCI 110 CV
56.000 km



LAGUNA COUPÉ EMOTION PLUS DCI 150 CV
2011 urtekoa - 64.000 km
Nabigatzailea, Klimatizagailua, 6 marxa...



LAGUNA GRAND TOUR TOM-TOM DCI 130 CV
53.000 km
Nabigatzailea, Klimatizagailua, 6 marxa...



LAND ROVER FREELANDER 1.9 110 CV
87.500 km
Automatikoa



KANGOO EXPRESS CONFORT DCI 70 CV
59.000 km




DACIA DUSTER LAUREATE DCI 4x4 110 CV
Estreinatu gabea

MUSEORAKO MODUKO ZORUA ZURE ETXEAN

Frank Gehry, Jean Nouveau, Calatrava...
Munduko arkitekto ospetsuenek Parklex
erabiltzen dute obra askotan.

Orain, zur naturalez egindako material
hau zure eskura duzu, prezio ezin
hobean.



**PARKLEX
ZORUA
HARITZ
NATURALA
40€/m²**

*Zatuz gure zoru berria ezagutzera: kanpoaldean
jartzeko da eta ez du mantentze-lanik behar*



maiatzak 8 // 9.00 - 18.00h
maiatzak 9 // 9.00 - 13.00h

COMPOSITES GUREA
Alkaiaga industrialdea, Baldrun kalea z.g.
31780 BERA

TXARTELAREKIN
ORDAINTZEKO AUKERA

INSTALATZAILEAK ETA GARRAIOA
ESKAINITZEN DITUGU

Tel. 948 625 045

Parklex[®]
www.parklex.com

BAGOAZ BAGUZI BAGAZI
HAZIZ
ttipi-ttapa haziz!
TTIPI-TTAPA

AUKERA BERRIA!
DAGOENeko ZURE ESKURA!!!



zuk 50€ ttipi-ttapari ematen badizkiozu
40€ berreskuratuko dituzu
2015eko errenta aitortpenean
% 80ko desgrabazioa errenta aitortpenean



...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapak?

- Aldizkaria hamabostero argitaratu eta zure etxera eraman
- Web orriaren eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Eskualdeko berriak landu...

ETA GUZTIA
EUSKARATIK ETA EUSKARAZ



MEKONA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Mallerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa bazara guk deituko dizugu.

Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu

948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoan